




BAPATEAN 2018

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarreetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Hautaketa eta transkribaketa: Felix Irazustabarrena

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena, Bertso Doinutegian oinarrituz.

Zuzenketak eta azken orrazketa: Martin Aramendi.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

© MINTZOLA FUNDAZIOA

© LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:

MINTZOLA FUNDAZIOA

Nagusia, 70

20.150 Amasa-Villabona

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Amasa-Villabona

LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L

Martin Ugalde Kultur Parkea

20.180 Andoain

I.S.B.N.: 978-84-945409-2-9



AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
Argibideak eta irizpideak	6
Bat-bateko bertso hautatuak	9
Bat-bateko sariketak	180
Bertso saioen mugimendua.	196
Tauletako kontzeptuen azalpena	202
Txapelketa eta sariketak	209
Saioen aurkibidea	243
Bertsoaldi hautatuak	249
Bertsolarien aurkibidea.	255
Izen eta izengoitien deskribapena.	258

Hitza u-
rrea



Bedatseko ber denboran lüze eta llabür üdüri düen egün horietarik batetan, etxenکو ezkatز eta sükalte arteko zirküitoko harat hona kopürüa gorarazteko partez, pino baten lantatzeko gogoa horra den bezala, hegoaldean üngürü üngürü emanaldi baten egiteko inbea agertü ziküzün, herriko bizpahiru illitxoriekin.

Txarriotealat jauz eta, bidea durdullaska behera бүрүз jarraikiz, bazterrak paper eta kartuz lilistatzen hasisrik, helturik gira! Hel eta berehala, xokoko lehen ostatüa ediren günün. Nola ote manhatü behar da? Espainulez? Nahiz ez zaikün itsusi euskaraz zerbaiten galtatzea, borogatü günün kafe bat edan eta hura galtegin ondoan, ostalerrak ez züala deuse entelegagarririk agerrarazten. Ura aldiz, "h" eta "r" basa horiek ahozkatü gabe, bai, animaleko indar baten egitez manerala. Horrek güntüan erdaldüntarazi ondoko garagardo elibaten manhatzeko.

Aize hegoak gorotztopotik altsarazten düan kiñodüra ohartarazten düen garagardo zonbaitekin sabel zolan, goatzan paseüz. Karrika trauka eta hegoaldetiar zonbaiten kürütxatzeko tenorea günün manerala. Kürütxagan eküra eta elestan has! Drole atzamaiten nüan elestaldi oren laurden batetarik landa, xiberotarrer ez zeila orano kantore baten emaitea edo pastoral baten aipatzea galtatü. Ez nüan lüzazegi haidürü egon behar izan agit dadin artino, hegoaldealat joaiten giren aldikal bezala. Ez nüke akigarri dela erran nahi bena... bai. Partitzeko tenoreari honki jina egin ginion, partitzeko tenorea eman gabe, gazi gozo batekin gibealealako bidea harturik gure lürraldetarat бүрүз. Ordüan, ürrentzeko, jakin ezazüe bizpahiru oreneko errima gabeko kobla hankaluze segida bat beno hanitxez hobeki egiteko gai girela, ez girela bortsaz kantari, noiztenka koblakari, bai eta züekin nahasteko egiten dügün indarraren herrena beno haboroxeago egitea ez dela hain gaitz. Azkenekoz gogo honez ber gisako bidajeak gei dütügüla berritü. Ez pentsa dela ürgulüa, hori da ene ambizionea, ez egin otoi bi horien arteko nahaskeria. Irustarzunik ederrana beilizateke gure herrian bakea.

Johaine Sarraillet

Argibideak eta irizpideak



1.- Urtean urteko bat-bateko bertso-gintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkartek urtero argitaratzen duen bertso bilduma da Bapatean.

2.- *Bapatean 2018an*, 54 bertso saioetatik hartuta, 87 bertsoalditako 607 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin. Guztiak CDan MP3 formatuan entzungai egoteaz gain, BDBn aurki ditzazkezu (1)

3.- Bapatean antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2018an 411 saio grabatu dira entzuteko euskarrian.

5.- 2018. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertso-paperen alorreko ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

6.- Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak (2) (Bertsozale Elkartea, 2004) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako Bertso Doinutegiaren (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkartek onartutako Bertso estrofak izendatzeko irizpideak (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- Hau guztia gauzatzeko, oso garrantzizkoa izan da erakunde hauek emandako diru laguntza: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia.

9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamai-ka grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

Aurrerantzean ere guztioi esker ondare hau biltzen, antolatzen eta hau bezalako argitalpenei esker zabaltzen joango gara.

Bertsozale Elkartea

(1) <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa>

(2) <https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3400-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak>

(3) <http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa>

(4) <https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak>





Bat-
bateko
bertso
hautatuak

BAIONA

(2018-01-12)

Bertsolariak

M. Lujanbio, S. Colina, J. Maia, A. Arzallus, B. Gaztelumendi, A. Mendiluze,
A. Sarriegi eta I. Elortza

Gai emailea

Joana Itzaina

Seaskak antolatuta beste urte batez "BECtso saioa" egin zuten Herriko Antzokian. Txapelketa Nagusiko zortzi finalistekin antolatzen dute azken urteotan eta oraingoan, Barakaldon hilabete lehenago kantatutakoetatik, Unai Agirre falta zen, eta haren ordeztu Jon Maia joan zen. 400 lagun hurbildu ziren saiora eta bakoitzak 10 euro ordaindu zuen ikastolen alde.

M. Lujanbio - A. Mendiluze - B. Gaztelumendi

Gaia: Maialen, aurtengo txapeldun bezala elkarrizketa asko egin dizkizute egun hauetan. Baina gaur sekula ez bezalako galderak izango dituzu bi kazetari hauekin, Beñatekin eta Aitorrekin.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Orain hasi bihagu

A. Mendiluze

Begiratu Maialen
zu zentroan zaude
oinak tinko lurrean
ze zapata pare!
Jende denak gauza bat
jakin nahi hala`re
lokarriekin edo
lokarririk gabe?

M. Lujanbio

Hori da jakin-mina
hori gutizia!
Goitik behera begira
ta ze malizia!
Lokarriez galdera
burla-haizez ia.
Kazetaria zara
ala polizia?

B. Gaztelumendi

Nik beste korapilo
bat badaukat aurten
nola ez dezun dena
ongi erantzuten:
galdetuko det nola
jakin nahi genukeen
mukerrek ta erkinek
zer esan nahi duten.

M. Lujanbio

Ene hementxe dena
esan ahal baneza!
Baina definitzea
batzutan nekeza
bi hitzekin aditu
hitzon beste ertza:
erkin da ahula ta
muker muturbeltza.

A. Mendiluze

Estetika ez dago
diskurtsoen aurka
nork berea bezela
zuk zurea hauta.
Zure ile beltz hori
orrazien mauka
ta ezkerreko motz horrek
zer esanahi dauka?

M. Lujanbio

Estetikari ere
horrenbeste mezu!
Ez al zaizu gustatzen
ote zabiltz kexu?
Mozt honek ze esan nahi dun
jakinda zaude zu
zuk ezkerrean eta
eskuinean dezu.

B. Gaztelumendi

Zuk finala azaldu
duzu saioz saio
nunbait mundura zinen
bertsolari jaio.
Hala`re txapelari
eustekotan iaio
garbitzerakoan zer
bota behar zaio?

M. Lujanbio

Garbigailura ezin
bota edonola
"Hori garbitzen al da?
Ta bai bada, nola?".
Nerea mahaian dago
ta bertan dagola
Andonirenen antza
har dezala hola.

A. Mendiluze

Aurrez pentsatu ohi da
ze bide, ze mezu?
Txapelketa guztiei
azaldu diezu.
Bertsolari eskultura
jasota zaude zu
hurrengo harekin
prestatuko al dezu?

M. Lujanbio

Lehen Oteizarena zen
zera hori hasteko
denak Andonik dauzka
ni bisai tristeko
suertea nun txapela
trofeoz jazteko
nahiko pisu badauka
intxaurrak hausteko.

B. Gaztelumendi

Ai, daukazun indarra
daukazun klasea!
Ta ai, daukazun hitza
esanahiz ase!
Beti ematen diezu
besteei atzea
inoiz pentsatu al duzu
erretiratzea?

M. Lujanbio

Ironiaz joan da
zure labankada
zahartuta ikusiko
nauzu, ala? Hara!
Ile beltzetan zenbait
zuri badut jada
baina erretiratzeko
dexente falta da.

GETARIA

(2018-01-14)

Bertsolariak

A. Mendiluze, I. Elortza, A. Sarriegi, A. Arzallus, S. Colina eta M. Lujanbio

Gai emailea

Uxue Alberdi

Balentziaga museoan egin zuten jaialdia eta 550 lagun inguratu ziren bertara. Arratsaldeko seietan hasi zen bertso saioa eta bukatu eta berehala abiatu behar izan zuten bertsolariek Anoeta estadiora. Izan ere, Real Sociedad-Bartzelona futbol partidara gonbidaturik zeuden, bertan ohorezko sarea egiteko.

M. Lujanbio - A. Arzallus

Gaia: Jakingo duzue gaur, hemendik hiru ordura jokatu den Realaren eta Bartzelonaren arteko futbol partidari Maialenek ohorezko sarea egingo duela. Baina ez pentsa bertsolaritzaren Messiri erraza egin zaionik erabakia hartzea. Nahiko buruhauste eman dizkio ohorezko sarea. Izan ere, Amets eta Maialen, zuek futbolzaleak zarete. Gozatu egiten duzue futbolarekin. Baina baita sufritu ere. Zer da futboleko gozagarri egiten zaizuen? Eta zer gorrotagarri? Zer kontraesan sortzen dizkizue eta zer daukazue esateko zuen kontraesanean alde?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Goizian goizik jaiki ninduzun I

M. Lujanbio

Hobe ez entzun zaleak oihuz
haiei esaten diena
"Maricòn" eta "Puto negro"ka
ia-ia partida dena
ze ebasio fiskala eta
ze dirutza horiena!
Ederrena da jokoa baina
jokoa da gutxiena.

A. Arzallus

Ekialdean zenbat ilunpe
sartaldean zenbat eki!
Mundu petral hau ostikoz jotzen
Pelek bezala baneki!
Okerrena da nahiz maite izan
Erreal ta Athleti
munduko minez anestesiatzen
laguntzen dutela beti.

M. Lujanbio

Urruti heltzen da propaganda ta
laister itzaltzen kritika
jendeak duen harrokeriak
eragiten dit goitika
"Ez zaite izan debila" eta
"Ez zaite izan marika"
hori da ur denak barruan dauzkan
gizonkeria fabrika.

A. Arzallus

Eta askotan geure mira ere
beste denen salatari
pentsatuz ze gauz kontraesankor
bat delarik futbolari.
Munduko gaitzik okerreña da
baititu milioi ugari
ta gauz txiki bat eginez gero
bilakatzen da gudari.

M. Lujanbio

Eta orduan zertara goaz
gauzak badira horrela?
Futbolak Euskal Herrian baitu
eragin sozial itzela
eta jakinik euskaldunak ta
bertsozaleak direla
pozoinak pozoin sinestu nahi det
bestela izan litekeela.

A. Arzallus

Jakinik zirko haundi bat dela
ta diru hutsezko talde
gure malko ta izerdi denak
hor doazela debalde
geure lana da energi hori
ta indar hori bestalde
nola itzuli geure hizkuntza
ta kontzientziaren alde.

M. Lujanbio

Erdira irten ta ostiko jo
ta ez dit emango penik
mundu guzian ikusiko da
halere bertan gehienik
eta hemengo erdaldunentzat
izan liteke onenik
batzuk jakin`e ez dute egingo
hemen euskara badenik.

A. Arzallus

Eta Munduko Kopan Maialen
haundi txikien bataila
maiz justizia poetiko bat
berdegune ta harmaila
Euskal Herria helduko balitz
nahiz orain dirudin zaila
neure buruaz lotsatu arren
margotuko dut masaila.

A. Arzallus

Gaia: Geografia da Ametsen zaletasunetako bat, Euskal Herrikoa eta mundukoa. Gaur Euskal Herrian zen-tratuko gara: hemen gutxi dira Euskal Herrian barna zu adina ibilitakoak, eta, muga zahar hori zuk adina za-paldu eta zabaldutakoak. Emaguzu klase magistral bat, egin iezaguzu gure geografiaren alarde bat. Euskal Herriko ahalik eta herri edo txoko gehien zerrendatzeko eskatuko dizut 9ko txikian (esateko toki gutxi, erri-ma asko, abiada bizian). Geografia-jakintza eta bizkortasun mentala. Ametsen bertuteen artean bi. Animo!

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: Gaztalondo handian

A. Arzallus

Lehenik hiriburuak
bai baitute sona
Maule eta Garazi
da gure zona
Gasteiz aldean berriz
hotza ez da broma
Donosti eta Bilbo
horra hor dagona
baina handik hona
erreten sakona
Iruña-Pamplona
edota Baiona
bi hoiek elkartzea
zein gauza ona! (bis)

Urola bailara hau
ez zait hain arraro
Orion nahiz Zarautzen
erdi naufrago
ta Zumaiara salto
luzatuz bi zango
gehien zein maite dudan
dizuet esango:

iparralderago
joanez harago
mingain eta ago
Getari da klaro!
Baina Miarritzeren
ondoan dago. (bis)

Getaria bat han ta
beste bat primeran
gaudeneke haxe da
ta ez da soberan.
Horra mugak bi alde
besteren joeran
elkartu beharreko
gure pasaeran
luze-zabaleran
herri hau zer ote dan
sartu-irteeran
eduki aukeran
ea geure etxetik
irteten geran. (bis)



“National Cowboy Poetry Gathering” topaketak. Elko (Nevada) 2018-02-01. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

LEGUTIO

(2018-01-19)

Bertsolariak

O. Bartra, N. Ibarzabal, I. Elortza eta S. Colina

Gai emailea

Oier Suarez

Urteroko saioa egin zuten Kultur Etxean lau bertsolariekin. Goxo bete zen areto txikia.

I. Elortza - N. Ibarzabal

Gaia: Bikotea zarete eta zuen alaba munduan zehar dabil motxila hartuta. Igor, kezkatuta zaude, eta hala adierazi diozu Nereari. Honek hala kantatu dizu: "Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez zuen alde egingo..."

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala

I. Elortza

Hegoak eta txoriarena
beraz neukan ikasteko
gure alaba munduan zehar
bizitza aberasteko.
Hegan bai baina ze abildade
aita ta ama ahazteko!
Lumarik ez al zaio geratzen
gutuntxo bat idazteko?

N. Ibarzabal

Luma gabeko hego txikiak
zabalduta parez pare
munduan zehar bidaiatzea
orain ez da nobedade
eta utziozu Igor lasai
erori ta egiten alde
aspergarria eiten al zaizu
kabia alaba gabe?

I. Elortza

Gure alaba beti zebilen
txori kantari ta alai
gogoan dauzkat bera etxean

izandako hainbat garai.
Guk biok berriz nonbait ez dugu
orain horrenbeste dohai
kabia ez zait txikia egiten
baina apur bat hotza bai.

N. Ibarzabal

Baina beti ezin zara izan
alabaren begirale
beti izan da arima aske bat
eta horren bizizale
ezagutuaz Peru aldeko
mila hiri eta kale
eta gutaz ez bada oroitzen
zoriontsu den seinale.

I. Elortza

Peru aldera joan zen baina
noraino egin ote txango?
Mexiko edo Nikaraguara
ere ez al zen joango?
Ni bihozbera naiz baina ez zara
zu hain bihotz hotz izango
zeuk ez duzunik faltan botatzen
ez didazu ba esango?

N. Ibarzabal

Bai egia da berari deika
pasa nahi nuke astea
baina utzi nahi diot izaten
ahal dudan beste askea
eta lehen ere hasi dudanez
Artzeren letren eskea
apurka-apurka mozten ari naiz
bigarren zilbor hestea.

I. Elortza

Neuk ere moztu egin beharko dut
eta ze erremedio!
Baina apur bat sufritzen nabil
gure alaba hau medio
gaurko gazteak Amerikara
joaten dira kabendio!
Eta ez dituzte ezagutzen
Legutio ta Otxandio.

N. Ibarzabal

Geografian ez dira onenak
hori ezin dugu uka
Erasmusi esker ezagutuz
sarritan Belgika punta.
Baina zu lasai horrek guretzat
soluzio bat badu ta
Araba aldera joan gaitezen
geure motxilak hartuta.

TOLOSA

(2018-01-20)

Bertsolariak

M. Lujanbio, B. Iguaran, A. Laburu, A. Arzallus, A. Egaña eta A. Mendiluze

Gai emailea

Amaia Agirre

Urteroko moduan sarrera guztiak aldezturik amaituta eta Leidor aretoa lepo beteta ekin zioten Tolosaldeko Ataria komunikabidearen aldeko saioari.

A. Egaña - B. Iguaran

Gaia: Bideo bat jarri zieten pantailan. 1982ko Zarauzko bertso saioa, non Andoni Egaña eta Beñat Iguaranen aita, Inaxio Iguaran, elkarrekin kantari agertzen diren Lizardi Sarian.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

B. Iguaran

Zarautz omen zan esan didazu
ze ezuste arraroa!
Ordu ezker denbora degu
dexentea igaroa.
Zu gazte zaude, mutil lerdena
sasoikoa, oparoa
ta nere aittak berriz dirudi
orain baino zaharragoa. (bis)

A. Egaña

Hori iruditu baldin bazaizu
ez da Inazion kaltian
hori ikusiz txunditurikan
geratu naiz bapatian.
Mila ondorio atera ditut
eta hau hoiien artian:
pertsona zenbat aldatu leiken
hogeita hamasei urtian. (bis)

B. Iguaran

Kutxilarekin ezin ote zan
horko bizarra urritu
gerribuelta ere alkandoraren
barruan juxtu kabitu...
Gure ama nola engainatu zun
nik ezin det entenditu
gure amak badu alkandoraren
botoiak aina meritu! (bis)

A. Egaña

Ba zuen aita sumatu det nik
oso gizon ta tajuan
bertsotan ere fin aritu zen
doinuan eta ujuan.
Igual norbaitek nere gainbehera
sumatuko zun gaurkuan
baina ideak etorri zaizkit
ileak joandakuan. (bis)

B. Iguaran

Gure aittai ere aldatu zaio
itxura ta koloria
"Nolako egurra hala ezpala"
ze esaldi dotoria!
Entenditzeko ez da errex
baino hola da ordia:
gure etxian ezpala irten da
egurra baino hobia. (bis)

A. Egaña

Iguarandar hauen ondoan
egin det nik hainbat bide:
beren lehenengo belaunaldian
aita nuen adiskide
ta bigarrenengo belaunaldiaz
aritzen naiz aske, libre
hirugarrena iristen bada
eutsiko diot hari`re. (bis)

B. Iguaran

Gure aittak ere bidea egin nahi
omen zuen pausuz pausu
baino gainerik omen zenbiltzan
eta egin enbarazu.
Gure aittak utzi zun ta erruduna
Andoni omen zinan zu
baino semia erretiratzan
gehixu kosta bihar zaizu. (bis)

A. Egaña

Ez naiz halako gizajalea
ez naiz halako piztia
aitak plazari utzi zion ta
ez da hain gauza tristia.
Nere helburu ez degu Beñat
zu plazaz kanpo uztia
ia nolabait lor dezakedan
aita berriro hastia. (bis)



Bertso udalekuak. Irañeta, 2018-07-11. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

A. Egaña

Gaia: Tolosako saioa bukatu eta parrandan jarraitu duzu. Bertsokideak joan dira. Ordu txikitan tabernan zaudela, emakume batengana hurbiltzen ari zara, eta "Zer, semearen bila?" galdetu dizu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: ETaren su-etenetik

A. Egaña

Bertso saio bukaera
neretzat ze *maravilla*!
Une hortan zabaltzen da
nerbioen maratila.
Taberna hontan sartu naiz
galdu egin det kuadrilla
emakume bat galdezka
mingaina ez dauka hila!
Ba nik e emango diot
erantzun trinko, bipila:
"Erabaki det estresa
alkoholetan joan dadila
ta gaur iritsi naiz nere
semearen aitan bila". (bis)

Ez du asimilatu ta
andrea joan da aparte
eskerrak beste tipo horrek
barra hontan badun parte
esan diot "Zazpigarren
bourbon garesti bat bete"
ta hizketan hor hasi naiz
tipoakin derrepente:
"Garai batean txapeldun
ia Zarauzko alkate
ta deprimiturik nago
orain ez naiz ia bate
gaur bertsokideek ere
dragoia deitu didate". (bis) (*)

"Realak atzekaldean
problema dauka itzela
aste hontan denboralean
itsasoa ze krudela!
Ene nora igo zaigun
Euroiborran nibela!"
Berriketa eman arren

ez dit erantzuten bela!
Baina eskua altxatzen du
beti neronek bezela.
Azkenean jabetu naiz
ispiluai ari naizela
ta badakit etxerako
ordua oraintxe dela. (bis)

(*) Aurreko bertsoaldi batean dragoitzat hartu zuen Agin Laburuk Andoni Egaña.

B. Iguaran - M. Lujanbio - A. Laburu - A. Mendiluze - A. Arzallus

Gaia: Zazpi urteko umearen logelan zaudeten objektuak zarete. Lurrean zaudete denak umearen haserrealdi baten ondoren, honek botata.

Neurria: Seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

A. Mendiluze

Lau urterekin egin
ninduen ni pozik
buztinezko pote bat
artelan bat kasik
ta orain ez haztearen
seinale bat baizik. (bis)

M. Lujanbio

Umearen eskea
ezin atertua
Barrigitas beltza izan
ote azertua?
Originala baino
beti baztertua. (bis)

B. Iguaran

Ni eltzetxo bat naiz ta
hemen kieto egon
oaindik osorik nago
ta egin jaramon
naiz ta puskatuta`re
jada berdin dion. (bis)

A. Arzallus

Ni Lego puska bat naiz
txiki, hauskor, plako

parketaren txulora
egin det eskapo
nik uste hemen nagola
berrehun urterako. (bis)

A. Laburu

Buztinezko poteak
lurra gaur eskaini
baino ez da puskatu
banengoen ba ni!
Atzean jartzen baitu
Made in Germany. (bis)

A. Mendiluze

Ba ez, ez naiz puskatu
ta ez naiz harritzen
lau urtekin ez zuen
buztin kapa fintzen
zortzi izan balitu
puskatuko nintzen. (bis)

M. Lujanbio

Hanka bat kendu zidan
behin amorratuta
begi bat zabalik det
bestea lotuta
oaindik Geipermanekin
enamoratuta. (bis)

B. Iguaran

Hemen juntatu gera
kuadrilla aldrebesa
bat Made in Germany
ta bestea beltza
nola hitz egin jakiten
ez dago erreza. (bis)

A. Arzallus

Lau milimetro kuadro
parket txuloan uau!
Dena germano bueltan
eta katuak miau!
Igual aspiradorak
reskatatuko nau. (bis)

A. Laburu

Ni Mister Potato naiz
nengona ederki

baina kaja aldrebes
egin zun ireki
hanketako usaia
bizitu naiz beti. (bis)

A. Mendiluze

Gu gera traste pila
nola halakoa
denak zakarretara
bota ta nahikoa
ohe gainean dago
puskatutakoa. (bis)

M. Lujanbio

Ilea moztu zidan
ta ni kopetilun
lehen ni baino ederragoik
ez zegola inun
ta Barbie txerri horrek
izoratu ninun. (bis)

B. Iguaran

Txerri beraz nerekin
behera eta gora
lurrian ez gaudenez
gu bostok gustora
reskatzera ama
noiz etorriko da? (bis)

A. Arzallus

Saltotxo bat egin det
ze indar frenesi!
Leku txikitan ere
badakit ihesi
lehen Lego bonbero ta
orain "Lego Messi". (bis)

A. Laburu

A ze etorkizuna
beltzeko neskana!
Ni berriz nere gorro
hanka ta eskama
dragoia bakarrik da
erori ez dana. (bis)

MUNGIA

(2018-01-27)

Bertsolariak

U. Iturriaga, O. Bartra, A. Arzallus, A. Egaña eta M. Agirre

Gai emaila

Alaitz Rekondo

lazko etenaren ondotik, eta Euskal Herri osora zabaltzeko asmoarekin, Bertso Eguna ospatu zen Mungian. Bertako Udalaren eta Taket Bertsolaritza Alkartearen laguntzarekin, egun osoko jarduna osatu zuen Bertsozale Elkartek.

Kantuen letra sorkuntza eta bertso idatziak helduleku hartuta, eguerdian Torrebillelan mahai-ingurua izan zen. Alaia Martinek gidatuta, Rafa Rueda eta Maria Rivero musikari eta abeslariak eta Jon Maia bertsolaria aritu ziren. Jarraian, poteoa egin zen Mikel Barandiaranek eta Julene Otegik girotuta, eta bertso bazkarira joan ziren 250 lagun. Hiru elkarte gastronomikotan banatu ziren bertsozaleak eta bertsolariak, bakoitzean bi: Julio Soto eta Onintza Enbeita Ehiza eta Arrantza Elkartean, Sustrai Colina eta Miren Amuriza Anaitasuna Elkartean eta Igor Elortza eta Jone Uria Guri Zer elkartean.

Arratsaldean, berriz, 450 lagun bildu ziren Mungiako Olalde aretoan. Bertsolariekin artista gonbidatuak ere izan ziren. Bertso Egunak kantuen hitzen sorkuntza eta bertso idatziak zituen helduleku, eta hala, Patxo Telleria eta Mikel Martinez antzerkilariak abiatu zuten emanaldia, Adrian Garcia de los Ojos musikaria lagun, "Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa" beren azken antzezlanarekin. Jon Martin bertsolariak bertso jarriak errezitatu eta kantatu zituen.

A. Egaña – M. Agirre

Gaia: Raperoak eta antzerkilariak kartzelaratu zituzten Espainian, twitteroak Euskal Herrian. Nahi duguna nahi dugun moduan erran dezakegu?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Menditarra naiz eta gogoan

A. Egaña

Maiz arriskua suma liteke
jendaurreko jardun baten
saiatzen gera etorri ahala
den-den-den-dena esaten.
Igual belarri zornetu batzuk
egon litezke entzuten...
Oker ez banaiz Lazkao Txiki
barrura eraman zuten.

M. Agirre

Geuk nahi duguna esan nahi dugu
ta esan nahi dugu gehiago
Lazkao Txiki edo hurrengo
belaunaldiez harago.

Demokratarik demokratenak
etorri eta akabo!
Adierazpen askatasuna
debaluatuta dago.

A. Egaña

Arrakastaren kakoa datza
mailan edota graduan
bertsolariak ahal bada hori
izan behar du goguan
ta gauzak esan esan behar ditu
oholtzan dagoen orduan
ahal bada libre geratu eta
min emateko moduan.

M. Agirre

Bai halaxe da baina pasatu
dena kontuan hartuta
twit bat zer da ba? Txio txiki bat
karakterak kontatuta
baina Amurrio aldeko lagun
horixe begiratuta
agian buka zenezake zuk
ziega barruan sartuta.

A. Egaña

Agintariak nola ez diran
askatasun adiskide
benetan kontuz atera behar
ideia eta hizpide.
Guk asko esan eta halere
oraindik dira libre
euskera hortan`e izan liteke
gure askatasun bide.

M. Agirre

Ba bai batzutan izan liteke
oasi haundi bat bezela
ta badakigu mikro aurean
libre aritzen garela.
Konparaketan jausi ezkerro
pentsa liteke horrela:
iruditzen zait bertsolariok
gaizki ohituta gaudela.

A. Egaña – A. Arzallus

Gaia: Elkarri puntuak jartzeko eskatuko dizuet. Hori bai, sartu igogailuan eta egin goraka.

Neurria: Seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

A. Egaña

Bertsoen hirugarren
pisuraino goazen

A. Arzallus

hirugarren pisuan
zer da ba bilatzen?
Zigarrokina baizik
ez zaizu pilatzen. (bis)

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Maritxu nora zoaz I

A. Egaña

Laugarren solairuan
potoen beldurra

A. Arzallus

eta bekokia dut
ziharo zimurra
poto ez egitea
ez da hain xamurra
baina ongi egin ezkerro
badauka glamourra.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena I

A. Egaña

Lurretik urrun dago
bosgarren pisua

A. Arzallus

aski altura badu
ze paradisua!
Dena libertatea
hemen beti sua
nik amildegiari
ez diot izua
bertigo zalea naiz
gainera itsua.

Neurria: Zortzikoa, berdinen moldekoa, 7 puntuz
Doinua: Ikusten duzu goizean

A. Egaña

Zer da zortzigarrenean?

A. Arzallus

Doinu zail bat azkenean
zer ote du barrenean?
Zail da sartzea galderarikan
bat'e ez duen trenean
bederatzigarrenean
biak goaz aidanean
zer jakin gabe lanean.

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: Betroiarena A

A. Egaña

Beatzigarrenean
bukaera han da.

A. Arzallus

Betroiaren doinuak
a ze txaranga
Zaldi zuriarenak
ere badu txanda
Bilintxi eta haiei
a ze propaganda!
Ba zure demanda
halaxe izanda
onenak emanda
goaz tandaz tanda
azkena hauxe zan da
bukau da danba! (bis)

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: Betroiarena A

A. Arzallus

Berdina egingo dizut
baina goitik behera

A. Egaña

beatzigarrena altu
dago gainera.
Maldizio pila bat
dator mingainera
eta dardarizo bat
sartu zait soinera.
Hauxe da aukera
beldurti tankera
daukat nik ospera!
Hau da kagalera!
Atzo jan nun kiwia
baietz atera. (*)

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: Baserrian jaio nintzan

A. Arzallus

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza

A. Egaña

berriro hanka sartzeko
ni ez nintzateke lotsa.
Bertsoa hautu izan nun
ez tradizioan bortxa
orduz geroztik mokoa
bihurtu nuen zorrotza.
Ibilbide bat egin dut
luzea edota motza
zazpi seme ez zitun baina
gure aita zen arotza
pozten naiz aukeratua
rima-neurrien morrontza
hortan jarri dut burua
ta batez ere bihotza.

Neurria: Zortzikoa, berdinen moldekoa, 6 puntuz
Doinua: Mendian gora haritza

A. Arzallus

Euskal Herriko profeta

A. Egaña

Amets ondotik ez tenta
lehenago era herri hau dago
holakoz beteta.
Glamourra daukat gordeta
zuk ondotik jo korneta
zein naizen ondo badakit orain
zahartu naiz eta. (bis)

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Triste bizi naiz eta

A. Arzallus

Triste bizi haiz baina
ez hiltzea hobe

A. Egaña

ni bezelako oso
oso gutxi daude.
Luzaro izan nahi det
arnasaren jabe
bueno igual biziko naiz
arnasikan gabe.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: Ikusi nuanean I

A. Arzallus

Azken puntu honekin
eman inbidia (*)

A. Egaña

Amets hartu dezagun
atzeko bidia.

(*) Hasierako ariketa batean "kiwia" eta "inbidia" deskribatu behar izan zituzten.

BILBO

(2018-01-28)

Bertsolariak

I. Elortza, A. Arzallus, N. Ibarzabal eta M. Amuriza

Gai emailea

Maialen Etxarri

7katu gaztetxearen hamaikagarren urteurrena ospatzeko elkartu ziren gaztetxean.

A. Arzallus - M. Amuriza

Gaia: Gaztetxeko bi kide zarete. Bazkarirako 100 txartel inprimatu zenituzten etxean. Etorri zarete bazkaltzera eta 130 lagun etorri dira, bakoitza bere txartelarekin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Naparruatik ardo karraio A

A. Arzallus

Guk ehun tike genituenez
normal, legal, inprimatu
hemen norbaitek alternatiba
tranposo bat du asmatu
ta tranpa gaztetxean parte da
ariman ohi da txertatu.
Beraz piratei utzi lekua
ta besteei zozketatu.

M. Amuriza

Hemen edonork hartu lezake
Ametz pirata papela
akaso txandak ein behar ditugu
orain eskolan bezela:
batzuk lehenengoa jango dute
bestek bigarren platela
ta nahi badute kopak hartzeko
denak itzul daitezela.

A. Arzallus

Baina pentsatu ze bazkari den
ta jendearen sasoiak
Bilbok badauka glamour haundi bat
ta hunkitze ditu goiak
baina jatetxe haundien hoiek

betetzen ditu doi-doiak
hemen arrakasta gehien dauka
xolomo ta makarroiak.

M. Amuriza

Baina jendea atean dago
ta ezin dugu luzaz ekin
zeren uste dut glamourra Amets
ez dijoala gurekin.
Bazkal dezatela erdi bana
banaketa iguala egin
ta gose dena konpon dadila
Chetoos pakete batekin.

A. Arzallus

Baina Miren ni orain hasi naiz
geure mahai hauei begira
ehun lagunentzat zenbat leku zen
ezkerretik eskubira
ehun ta hogeita hamar ipurdi daude
eta soilik ehun kadira
gure lakoak baldin badira
errex kabituko dira.

M. Amuriza

Egia esan zure moduan
neu ere fin jaio nintzen
baina ezin gara hargatik hasi
beste denak ere fintzen.
Tiketak oparituko doguz
ez badira hor kabitzen
ausartzen dena auzolanean
gure komunak garbitzen.

A. Arzallus

Hemen gehienek pringatzen dute
ta hasten dira ziprztintzen
denak prest daude laguntzeko ta
hasteko esku zikintzen.
Ehun ta hamar ez al dira ba
ehunen tokian kabitzen?
Egia esan Bilbo izateko
ez zait asko iruditzen.

M. Amuriza

Ate ostean ditugu Amets
dozenaka lagun hurko
aulki jolasa dala esanda

ez al gara pasatuko?
Dinamika bat irribarretsu
aurkeztu guk eta punto!
Udalekutan ohituta daude
ta ez dira kexatuko.

A. Arzallus - M. Amuriza - N. Ibarzabal - I. Elortza

Gaia: Amets, zure janzkeraz kezkatuta zaude eta hiru moda aholkulari hauengana jotzea erabaki duzu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Gure herriko bikariak

I. Elortza

Janzkerarekin zuk daukazuna
alperkeria da kasi
antiojuak kasualitatez
ta bizarra berez hasi
ta horrelaxe hipster itxura
ia-ia nahi gabe josi
baina pixka bat kurra ezazu
ta alkandora bat erosi.

A. Arzallus

Alkandora bat nik uste inoiz
erosi gabe bizitzan.
Bueno ez aizu komunio baten
behin hala gertatu nintzan.
Ibil ninteko, ai lgor maite
zeure estiloan gisan
baina hortara erori baino
hobe dut natural izan.

N. Ibarzabal

Beti izan zara zu zapatila
berde horien bezero
ta publikoa ipintzen duzu
hoiek ikusita ero
ez itzazu inoiz aldatu Amets
jantzi itzazu egunero
milioi bat euro balio baietz
ehun urte eta gero.

A. Arzallus

Zapatila hauek kamaleoiak
direla esan beharko
ze kolorea hartu ohi dute
ohi dabiltzan paisaiako
Iparraldetik etorri naiz ni
ta negoziatzeko txarto
ehun milioi orain behar nituzke
hil ta gero zertarako?

M. Amuriza

Ekis izpiak pasa dizkizut
silueta ikusi xedez
hogeita hamabost urtetan gorputz
handi bat baduzu zeurez
baina jertsea, prakak, nikia
ta denak kendu mesedez
ta holan hobeto esango dizut
zer datorkizun ta zer ez.

A. Arzallus

Ai ene Miren, Miren laguna
zu beti bai ausardian
ta estriptis bat eskatzen duzu
gaztetxe baten erdian
baina hoita hamalau urte dauzkat nik
bat gutxiago kaban
adina ongi esan bazenu
egingo nuen agian.



Arabako kuadrillak kantuan. Gasteiz 2018-01-20. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

AIZARNAZABAL

(2018-02-16)

Bertsolariak
A. Egaña eta I. Zubeldia

Gai emailea
Mikel Aiertza

Uztarri tabernan urteroko saioa, bertso afaria, antolatu zuten bertako bertsozaleek. Giro oso beroarekin jarraitu zuten saioa 70 lagunek.

A. Egaña - I. Zubeldia

Gaia: Bikotea zarete. Udako oporretara joateko erreserba egiteko prestatzen ari zarete. Andonik bost izarreko hotelera joan nahi du "Todo incluido" (guztia barne). Eta lkerrek ostatu merke batera, eta sobratzen dena beste zerbaitetan gastatu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta

I. Zubeldia

Booking-en beida pasa ditugu
hilabeteen sei aste
presupuestoa neurrikoa ta
biok'e gabiltz desastre.
Hiru izarreko hotela nahiko
degula hala det uste
gu biok bertan baldin bagaude
bost kontatuko nituzke. (bis)

A. Egaña

Ikernerentzat opari bila
ikernet hartu beharra
orain hotel bat haundia nahi nun
eta hau da zoritxarra!
Nunbait zuretzat alperrik dira
kategoria, izarra...
Hau izango da zuk nahi ez dezun
pultsera bakar-bakarra. (bis)

I. Zubeldia

Aspalditxoan ekonomia
nola dijoan gainbehera
hiru izarreko hotel batean
hobeto egongo gera:
dutxa bat spa bihurtu leike
ura dator goitik behera
lasai neronek egingo det ta
masajistaren papera. (bis)

A. Egaña

Diferenteak ditugu lker
lorea eta asuna
jabetu zaitez gastatuz joan
dala gure maitasuna
masajeakin indartu behar
al didazu osasuna?
Kanpoan nola egingo dezu
etxean eite ez dezuna? (bis)

I. Zubeldia

Baino kanpoko biaje horrek
beti badu bere xarma
nahi gabe ere akordatzan da
bikotean iragana:
zertako dezu jaboi arrosa?
Zertako dezu pijama?
Albornoza nik ipiniko det
atze librea daukana. (bis)

A. Egaña

Eta tentatzen hasi nahi du ta
hori zan errematia!
Hori da hori bikoteari
arrazoi bat ematia!
Baina albornoza atzekaldian
premizko badu tartia
horretarako merkeago da
ospitalera joatia. (bis)

I. Zubeldia

Mokadu onak egiten dira
beti auzoko larrean
bikoteari zeozer nago
erakutsi beharrean:
goazen balkoira ta kendu danak
jar gaitzen indarrean
izarrak zerun behar baitira
ta sustantzie lurrean. (bis)

A. Egaña

Behingoagatik onartu egin det
maitea zuk diozuna
orain balkoian ikusiko da
benetako maitasuna
baina probatzen hasi gera ta
galdu egin det osasuna
aurrekaldean daukat lorea
eta atzean asuna. (bis)

I. Zubeldia

Bi maitemindu kadukatuta
gabiltza elkarren grinan
nik jardinean probatu nahi non
ta honek berriz piszinan.
Berdintsu dio Hotel Londresen
edo Maria Cristinan
asalto latza jo behar degu
aparkaderon eskinan. (bis)

A. Egaña

Nere lkernek proposatuta
balkoi iskina atera
ari ginala hala esan dit
"Begira zazu aurrera"
eta kolpetik ikusi ditut
auzokoa ta kamera
ridikulua egiten biok
youtuben irtengo gera. (bis)



Bertso pilota. Oion, 2018-06-02. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ALEGIA

(2018-02-23)

Bertsolariak

O. Iguaran, A. Egaña, J. Maia, A. Martin eta B. Gaztelumendi

Gai emaila

Iker Iriarte

Gaztetxearen hogeita hamargarren urteurrena zela-eta antolatutako saioa. Giro beroa eta jendea gustura. Sustrai Colina zegoen izendatuta kartelean, baina gaixo zegoenez, Alaia Martinek kantatu zuen. Alaia jaio zen egun berean okupatu zuten Alegian tren geltokiko biltegia eta gaztetxe bihurtu, eta hori gogoan izan zuten saioan.

O. Iguaran - A. Egaña - J. Maia - A. Martin - B. Gaztelumendi

Gaia: Jon, sukaldari ospetsua zara, berritzailea, izarrez betetakoa... Zure platerak, gainera, bezeroaren izaerara egokitzen dituzu. Atzeko horiei bere ezaugarrien arabera plater bana prestatu behar diezu. Zuek dastatu... eta eman iritzia.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta

J. Maia

Andonirekin jai dauka hemen
berdearen marketinak
ez esparrago berdeak eta
ez alkatxofa gordinak
ikusirikan afalosteko
zure erretzeko grinak
hauek kilkerran birikak dira
ikatz gainean eginak. (bis)

A. Egaña

Lehen platoa berde-berdea
azeituna bat ospera!
Bigarren goan olibatxo bat
jarri zaidazu osterara
ta holakoxe gailetatxo bat
neretzat nahiko postre da
hartara gehio erre dezaket
plato batetik bestera. (bis)

J. Maia

Gose handiaren itxurik ez du
ta fin-fin zaigu eseri
begiradakin beste guztien
plater beteeri segi
jartzen hasi ta hau "Kendu, kendu
hau ere bueno, gehiegi!"
Azkenetako gelditu zaizkit
bisiguaren bi begi. (bis)

A. Martin

Aktualizatu ditut Instagram
gero Twitter, gero Facebook
ea platerak ze itxura zeukan
ze pose, ze estilo, ze look!
Ta bixiguen begi pareta
ikusi dut plateran, glup!
Pixka't beteta negoen eta
begi nini bat utzi dut. (bis)

J. Maia

Hau perretxiko magiko bat da
ezin det aipatu ozen
jarri plateran ta examinatu
pixka't zentratu gaitezen.
Sartu osorik ta ureztatu
ur kanal hontatik zuzen
bera barruan hazi ezker
zu ere hazi zaitezen. (bis)

B. Gaztelumendi

Plater honetan zer jarri didan
ez naiz hasiko galdetzen
halako gauza marroi bat zegon
hasi ezker aletzen.
Hala esan dit: "Ipini dizut
pixka bat hazi zaitezen"
bai irentsi det baina funtsean
txanpinoi bat baino ez zen. (bis)

J. Maia

Hauek palmera haziak dira
hau kokoa, hau banana
gero iratze sorta haundi bat
gero basa-sasi bana
gero zuhaitz bat exotikoa
gero kiwian buztana
zure izenari omenaldi bat
egin nahi nion Oihana. (bis)

O. Iguaran

Nik palmerarik ez det sumatu
hazitxo horren janean
baino fedea jarri nahi nuke
Chef Jaunaren esanean
bueno Oihana ikus nezake
globalizatu planean
hori guztia agertu bada
Iratiko oihanean. (bis)

J. Maia - B. Gaztelumendi

Gaia: EGUNKARIAren lehen alea eta BERRIaren lehen alea ematen dizkie gai-jartzaileak.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Hamalau heriotzena I

J. Maia

Lehenengo alea da
neska zein mutila
mundu hontara sortua
txiki ta umila
atzean aita-amak
euskaldunak mila
baina etorri zitzaion
Guardia Zibila
ta erail egin zuten
ez da berez hila.

B. Gaztelumendi

Bi mila ta hiruan
zenbat guardia zibil!
Nunbait ezin zitezkeen
ta ibili umil.
Baina Berria dago
egon zaitez trankil
ekainean irten zen
ta oraindik hor dabil.
Majo saiatu ziren
baina ez zuten hil.

J. Maia

Larogeita hamarra zen
urtea ta zera
urte pilo bat egin
behar da atzera

gogoratzeko nola
heldu zen etxera
txuri-beltza izan arren
mundura sortzera
etorri zen herri hau
koloreztatzen.

B. Gaztelumendi

Beraz kolorerikan
ez da erretira
arren Jon ez zaite joan
horren urrutira.
Epaitegiak doaz
neurritik neurrira
eta elebakarrak
ere asko dira
txuri-beltzean jende
gehiegi bizi da.

J. Maia

Gogoratuko degu
Bernat Etxepare
euskera aipatzean
izkribatu gabe
Egunkaria sortu
genuen hala`re
gero berriz Berria
berri, nobedade
eta mende askotan
bizirikan gaude.

B. Gaztelumendi

Bizi gera berrituz
makina bat kasko
baina bereiz ditzagun
gari eta lasto
konplejuek badute
nahikoa arrasto
euskaltzale baitira
asko eta asko
irakurtzen dutenak
Diario Vasco.

J. Maia

Kontraesan hoietan
bada hainbat kasu
baina aurrera goaz
pausurikan pausu.

Ikergai hontan ondo
ibili zera zu
lehenbiziko ale hau
altxor bat daukazu
ez dakit nola baina
ondo zaindu zazu.

B. Gaztelumendi

Madrilek itxi eta
Madrilek epaitu
baina absoluzioak
hau ez du amaitu
ateratzen da baina
ez zaite lasaitu
honek bere atzean
sare bat behar baitu
guk idazten degunak
gu idazten gaitu.



Eskolatik oholtzara. Bilbo, 2018-05-09. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZARAUTZ

(2018-02-24)

Bertsolariak

A. Arzallus, A. Laburu, O. Iguaran, B. Jauregi, E. Artetxe eta I. Zubeldia

Gai emailea

Beñat Intxauspe

Zarauzko Azken Portun jaiak izaten dira abuztuaren bigarren astearen bueltan, eta urtero izaten da bertso jaialdia. Musika taldeen dezibelioak gorabehera, Jai Batzordearen jaiak suspenditu egin ziren eta bertso saioa ere bai. Testuinguru horretan antolatu da Azken Portuko lehen Bertso Eguna. Bertso jaialdia, eta ondoren "Bi bala" taldea Putzuzulo gaztetxean.

A. Arzallus - I. Zubeldia

Gaia: Gaur ligatu egin duzue eta lkerren etxera joan zarete. Iker bero-bero dago, baina Ametsi atentzioa deitu dio etxeko dekorazioak eta gau osoa objektuei begira darama, galdezka.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Mando baten gainean I

A. Arzallus

Hau toki ona denik
ez nago seguru
zazpi bat eskopeta
dauzkat buruz buru
eta pareta baten
lau basurde buru
Iker hemen zenbatek
lo egin behar dugu?

I. Zubeldia

Bitrinan jarri ditut
zazpi eskupeta
armarioan dauzkat
beste sei gordeta
lau basurde burukin
apaindu pareta...
Lasai egon laztana
hilda daude eta.

A. Arzallus

Eskerrak badaezpada
bala bat nekarren
orein baten burua
eta tripa barren.
Beste kuriosidade bat
ta erantzun arren:
liburu hori al dago
dekoratzearren?

I. Zubeldia

Begiek egin die
liburura salto
literatura kontun
nabile hain flako
hori Biblia bat da
ta hara zertako:
goiko apalak duen
kontrapisutako.

A. Arzallus

Hara honek ez dauka
bat'e grazi faltik
neri adarra jotzen
hasi da haatik.
Biblia zertako dan
laztana badakit
Biblia beti izan da
goikoarengatik.

I. Zubeldia

Hau ligatu det baina
ezin sinetsita
moral a behera doa
gutxika-gutxika
kuadroa begiratuz
egin al du zita?
Behekoai egin kaso
goikoak utzita.

A. Arzallus

Baina behekoai hasi
aurretik begira
basurde begi hoiek
nolako dizdira!
Ta beste zalantza bat
etorri zait tira:
trofeo hoiek zeini
lapurtuak dira?

I. Zubeldia

Hoiek nik bota ditut
ene sozioa
disekatzen ari da
gure pasioa
kendu arropak eta
hasi sesioa
ikus dezadan zure
dekorazioa.

LEGAZPI

(2018-03-02)

Bertsolariak

A. Sarriegi eta U. Agirre

Gai emailea

Ane Beloki

Legazpiko "Bertso Olariak" bertso eskolak antolatu zuen afaria, Aitxuri jatetxean. Ondoren, bertsotan egin zuten, libreak lehen zatian eta gaiak emanda bigarreanean. Bukaeran, berriro libreak errematatu zuten saioa.

A. Sarriegi - U. Agirre

Gaia: Aurten Legazpiko Haztegi ikastolak 50 urte betetzen ditu. Sarriegi, lehenengo belaunaldiko ikaslea izan zinen eta gaur daramazu lehenengo aldiz zure semea, Unai, ikastola berera.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

A. Sarriegi

Gaur egunean bizi naiz baina
bizi izan nintzen lehenago
ta nostalgiaz ikastolako
lehen atea igaro.
Dena etxeko ta era berean
dena egin zait arraro
lehenago atea pasatu eta
lehenago usai bera dago.

U. Agirre

Lehen eguna gaur det nik eta
lurrak irentsi nazala!
Begiak ditut erdi kinuka
olio ipurdian azala
atea ireki ta aitak esan du:
"Hau dago lehen bezala"
baina espero det garai hartatik
zerbait aldatuko zala.

A. Sarriegi

Heldu eskutik ta mutikoa
igo orduko eskaileran
lehengo batzuk ikusi ditut
ta berri asko aukeran.
Unai guk hemen irudipena
ipintzen genuen hegan
ni zoriontsu izan nintzen ta
ea zu izaten zeran!

U. Agirre

Leku itsusia ez zait haseran
aizu aita iruditu
baina gela hortan behar al degu
hogeita zazpi kabitut?
Ta egunero sei ordu dira
eunak zenbat gehio ditut?
Aukeran jartzen baldin badezu
nahiago etxean gelditut.

A. Sarriegi

Baino hamaika jolas jokutan
hartu behar dezu parte
begira zazu ze polita den
bere patio ta parke
eta nahiz eta nahiago dezun
orain joatea aparte
zuk nahi ala ez egongo zera
hemezortzi bete arte.

U. Agirre

Patia ere ederra du bai
umeak gozatu dezan
nahiz sosegurik ezin bilatu
orain ez hemen ta ez han
nik txiristrara ta jolasera
alde egin behar det presan
baina kulunpio hortan kabitzen
zinanik neri ez esan!

A. Sarriegi

Garai haietan txikia nintzen
baina gero hazi naiz bai
eta begira andereñoa
hor dago pasilloan zai.
Orain berekin utziko zaitut
ni lanera noa Unai
zure aitag ere egin zuen ta
egin zazu negar lasai.

U. Agirre

Aitag alde egin irriparezka
ta semea utzi plazan
lehen esan dizut nik ez dedala
gelditu nahi gaurko saltsan
irakasleak zenbatsu urte
ditun jarri naiz zalantzan
nere andereño izango dena
zurea ere izan al zan?

A. Sarriegi

Oraindik ere hemen dago bai
horrek du moral itzela
ohartu arren garaia ere
asko aldatuz doazela.
Arrazoi dezu antzeman dezu
nerea ere izan zela
zu egon lasai zainduko zaitu
bere biloba bezela.

U. Agirre

Beso goxotan hartu nau orain
eta begira bi begi
beti horrela ez da izango
baina sarri izan bedi.
Agur ba aita baina bi musu
joan aurretik eman neri
eta hau luzaz izan dadila
ume txikien haztegi.

A. Sarriegi – U. Agirre

Gaia: Librean.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Mendiko umea naiz

A. Sarriegi

Beraz ostiralean
kontu ezberdina

U. Agirre

gaur aipatua degu
hori da jakina

A. Sarriegi

nik egunero eiten det
neretzat adina

U. Agirre

ondo esplikatu zazu
zure ahalegina.

U. Agirre

Irakasle omen zera
instituto baten?

A. Sarriegi

Bai bueno ta lagunak
gutxi dauzkat aurten.

U. Agirre

Goizeko lehen orduan
beti ez da joaten

A. Sarriegi

kostatzen baita orduan
klasea ematen.

A. Sarriegi

Goizean lo hartu det
hori da egia

U. Agirre

atzo parranda egin
zula alegia

A. Sarriegi

eta laguna daukat
gaur aluegia

U. Agirre

horregatikan dauka
gaur lo aurpegia.

U. Agirre

Eta ni altxatu naiz
goizeko seietan

A. Sarriegi

bueno arraroa da
zuregan benetan.

U. Agirre

Nahiz pixka't lo gehiago
egin gehienetan

A. Sarriegi

egi gehiago zegon
bigarren horretan.

A. Sarriegi

Ni ere sei t'erditan
jeikitzen naiz baina

U. Agirre

honek buelta egiten du
pixa egiteko adina

A. Sarriegi

ia hartua nago
denborai tamaina

U. Agirre

honek ere langile
haundina mingaina.

U. Agirre

Zenbat ordu dauzkazu
zuk egun batean?

A. Sarriegi

Hogeita lau nioke
egia esatean.

U. Agirre

Alegia zenbat lan
gelako atean?

A. Sarriegi

Gelan bakarrik ala
etxera joatean?

A. Sarriegi

Nik lana egiten det
gelan ta etxean

U. Agirre

baina ez du egingo
denbora luzean.

A. Sarriegi

Zuk zer egiten dezu
sofara heltzean?

U. Agirre

Kuluxka txikiren bat
bularik ezean.

U. Agirre

Baina beti izaten det
nork molestatua

A. Sarriegi

hori da besterena
ezin juzkatua.

U. Agirre

Gure bizitzak ere
badu enkantua

A. Sarriegi

zeuk nahi dezulako ta
zeuk aukeratua.

A. Sarriegi

Ni bakarrik bizi naiz
ta oso gustura

U. Agirre

ez dezu usteko egin
dunik inork duda

A. Sarriegi

baina pagatu behar
argia ta ura

U. Agirre

hoik'e iristen dituk
Agirren kontura.

U. Agirre

Argia, ura eta
beste hainbeste gauza

A. Sarriegi

guztiak ordaintzea
ez dago erraza.

U. Agirre

Sarri egin nahi al dek
lista hori luza?

A. Sarriegi

Hirera bezelaxe
bidali zak hauntza.

A. Sarriegi

Nire listan badaude
zurean adina

U. Agirre

ta ematen al dizute
patrikako mina?

A. Sarriegi

Ez da bera batena
launa edo bina

U. Agirre

lasaiagoa litzake
lasaia bazina.

U. Agirre

Baina gustatzen zaizu
batetik bestera

A. Sarriegi

biharamuna gutxi
ta asko bezpera

U. Agirre

parrandan gora eta
eskietan behera

A. Sarriegi

munduan perfektoak
inor'e ez gera.

A. Sarriegi

Danoi gustatzen zaigu
ondo bizitzea

U. Agirre

zuri gustatzen zaizu
asko luzatzea

A. Sarriegi

bizitza gozau gabe
ez det nahi hiltzea

U. Agirre

lasaitu zaite Aitor
ederki ai zea.

U. Agirre

Honezkero esan leike
lortzen ai zerala

A. Sarriegi

hemen gehienak daude
gaur Aitor bezala.

U. Agirre

Nik ere ahal banu eingo nun
hori da normala

A. Sarriegi

zu ere saia zintezke
nola edo hala.

A. Sarriegi

Eta seguru nago
lortuko dezula

U. Agirre

bai baina orain arte
ezin nun sekula

A. Sarriegi

gainera esango nuke
ikusten zaizula

U. Agirre

gezurra esan det ta
ezin disimula.

U. Agirre

Ni`re ondo bizi naiz
ezin naiz kejavu

A. Sarriegi

hori zeinek lezake
beretzako hartu?

U. Agirre

Beti gaizki bagina
zeinek aguantatu?

A. Sarriegi

Ta ondo bizitzea
noiztik da pekatu?

A. Sarriegi

Bueno ondo bizitzen
ze gusto daukagun!

U. Agirre

Gehiago daude ondo
ta fjavu lagun

A. Sarriegi

bestela ezin litezke
afaritan javu

U. Agirre

agurrak bota eta
despedi ditzagun.

BIRIATU

(2018-03-04)

Bertsolariak

A. Arzallus, U. Agirre, M. Arzallus, A. Egaña eta M. Lujanbio

Gai emailea

Aimar Karrika

Hirugarren urtea da Biriatuko ikastolaren alde jaialdia egiten dutela. laz eliza konpontzen ari zirela eta, kalean egin zuten eta aurten berriro elizan.

Saioaren aurretik paella jana, bazkaria, izan zuten. Elizaren behealde eta beste bi pisutako balkoiak bete zituen jendea oso gustura geratu zen saioarekin. Ondo hasi eta batez ere bizi bukatu zen. Ondoren, entzuleak gonbidatu zituen ikastolak tragoxka bat hartzera bertako pilotalekura, bazkaria egin zen leku berera.

M. Arzallus - M. Lujanbio

Gaia: Izebaren zaintza zuek biak eta hirugarren emakume baten artean eramaten duzue. Zuek greba egin nahi duzue Martxoaren 8an, baina hirugarren zaintzaileak ere bai.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Elizan sartu ziradenian A

M. Lujanbio

Garai latzetan asko sumatzen
baitira hemen hutsunak
parekideak dira hiruron
orduak ta lan jardunak
baina izebaren begi itzaliak
ta haren mami astunak
ze paradoxa, sufrituko du
gutxien merezi dunak.

M. Arzallus

Txiki-txikitik hainbeste gauza
dizkigunez erakutsi
ezingo nuke nik kate hori
egun bakarrean hautsi
izebarentzat berdin baitira
martxoak zazpi zein zortzi
beste inor ez bazaio etortzen
ezin dut bakarrik utzi.

M. Lujanbio

Baina zeozer egin behar da
hemen kalera irtenda

hautsi dezagun emakumeentzat
horren murrizta den xenda.
Gure anaiak dunean zaintza
noizik behinkako agenda
hura etorri beharrean bere
emaztea etortzen da.

M. Arzallus

Arrazoi duzu alper-alperrik
gabiltza anaiarekin
nahiz ta laguntza eskatzen ere
egin hamaika ahalegin.
Izeba ere emakume da
ongi badakigu jakin
eta kalera baldin bagoaz
eraman daigun gurekin.

M. Lujanbio

Kalera ez du joan nahi izaten
sarri edo maizenean
baina manta bat hanketan jarri
eta goazen zuzenean.
Emakumeok gen berezirik
ez dugu gure senean
ta zenbat lan zikin egin dugun
maitasunan izenean.

M. Arzallus

Maitasuna da gure ardatza
maitasuna harremana
hala ta guztiz emana digu
hainbat gauza txar jasana
nahiz eta beti guk egin dugun
izebaren zaintza lana
atzeko hiru mutilek ere
badaukate zer esana.

M. Lujanbio

Guri hitza eman behingoagatik
eta beude apartera
ta martxoaren zortzian berriz
tokatzen zaien partera
beti esaten gabiltza "Segi
jo ta ke jarrai aurrera"
ta mundua hankaz gora jartzen da
gelditzen baldin bagera.

M. Arzallus

Beraz guk greba egingo dugu
gure eskubideen alde
ta espero dut ez zaigula hau
ez aterako debalde.
Galdetu diet eta mutilak
laguntzeko prestu daude
ea hurrena mugitzen diren
eskatu beharrik gabe.

M. Arzallus - M. Lujanbio - U. Agirre - A. Arzallus - A. Egaña

Gaia: Ederki jakingo duzue aurten txirrindularien Frantziako Tourra Senperen izango dela, eta zuek horretarako prestatzen ari zarete. Unai entrenatzailea izango da; Maddalen, medikua; Andoni, taldeko liderra; Maialen, behetik gora datorren txirrindulari gaztea, eta, Amets, telebistan ateratzeagatik edozer egingo lukeen zalea.

Neurria: Lauko txikia
Doinua: Hona bildots ezia

U. Agirre

Lider haundi batekin
hementxe gaude gu
lau Tour irabazteko
preparatu degu.

M. Arzallus

Nik prestatuko ditut
odol eta EPO
Andonik dena behar
du irabazteko.

A. Egaña

Garai batean izan
puntaneko atleta
orain ez dut deus ere
liderra naiz eta.

M. Lujanbio

Nik eutsi egin behar
nahiz izan joan nahia
usaitzen noa honen
usteldu usaia.

A. Arzallus

Eta aurten Tourrak du
Ezpeletan zita
aurten azalduko naiz
piperrez jantzita.

U. Agirre

Ta botila karraio
Maialen lan dana
zuretzat ura eta
honi paratxana.

M. Arzallus

Lasai egon Maialen
dena dut hortako
EPO pixka't gehio dut
beti zuretzako.

A. Egaña

Liderra ez al da beti
taldearen babes?
Telebista etortzen zait
nahiz eta neuk nahi ez.

M. Lujanbio

Gregario deitzea
da hauen zioa
baina argi ta garbi da
esplotazioa.

A. Arzallus

Bost urtetan pixkana
joan naiz biluzten
aurten zer kendu gehio
ja ez dut ikusten.

U. Agirre

Buruari begira
jar zaitezte ti-ta
zaharrak hobe dauka
aerodinamika.

M. Arzallus

Nahiz hurbilduko naizen
xiringak hartuta
positibok badaude
ez da nere culpa.

A. Egaña

Ni ez naiz makurtuko
tximinoen modura
ez det sinisten hori
ein dezakezunik.

A. Martin

Ez badezu sinisten
zatoz ta probatu

M. Lujanbio

hurrengo astean igual
gaitezke geratu.

A. Martin

Aste osoa libre
daukat zuretzako

M. Lujanbio

baina nik lan asko dut
zereginak bapo.

A. Martin

Erosketak batera
egingo ditugu

M. Lujanbio

Black Friday horrek ez du
ez hanka ez buru.

A. Martin

Bada ostegunean
batuko al gara?

M. Lujanbio

Barkatu joan behar det
medikuetara.

A. Martin

Lagunduko dizut nik
noiz duzu kontsulta?

M. Lujanbio

Bost gutxitan hasi ta
puntuetan buka.

A. Martin

Ordu guztitan joan
leike bost gutxitan

M. Lujanbio

zurekin joatea
lotsa zait egitan.

A. Martin

Bueno ba kanpoaldean
itxoingo dut bai

M. Lujanbio

ginekologoa da
ta hori ez dut nahi.

A. Martin

Bueno kanpoko atean
itxaron nezake

M. Lujanbio

nahiago dut etxean
egotea aparte.

A. Martin

Bale zure etxean
itxaron nezake

M. Lujanbio

zure etxeak ere
badu nahiko ate.

A. Martin

Baina zuretzat dago
atea zabalik

M. Lujanbio

honen eskuzabalak
ez dauka igualik.

A. Martin

Munduko lagunikan
hoberena zara

M. Lujanbio

zure halaxe zera
gehitxoren gisara.

A. Martin

Gehitxo`re ona ez al da
izango Maialen?

M. Lujanbio

Sobredosia daukat
ja hasi baino lehen.

A. Martin

Eskerrik asko maja
ez da hainbesterako!

M. Lujanbio

Esan dizut lehen ere
ez naiz aterako.

A. Egaña - U. Mendizabal - A. Martin - M. Lujanbio

Gaia: Andoni, supermerkatu bateko kutxazaina zara. Erosketak egiten dituzten bezeroen produktuak ikusi eta nolakoa den beren bizitza asmatuz jolasten duzu beti. Hiru bezero pasako zaizkizu kajatik. Zer erosiko duten esan eta gero zuk asmatu beharko duzu nolakoa den beraien bizitza.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: Anai-arrebak hementxe nator

A. Martin

Galdu samarra da aspaldiko
nire bizitza etapa
harraska daukat platerez lepo
ta itzalita watsapp.
Beraz arren zu ez hurbildu gaur
neri bronka bat botaka
hogeia zerbeza erosi ditut (bis)
ta bi berberetxo lata.

A. Egaña

Zerbezarena entenditzen det
ahazteko da redio!
Zerbeza batzuk edango ditu
disgustoren bat medio

berberetxoak ere badauzka
eta hau da ondorio:
bakarrik dago, katu bat dauka (bis)
ta "kariño" deitzen dio.

U. Mendizabal

Jamonyqueso dozena pizza
hartua ditut gaurkuan
aurrez eindako hanburesak ta
sanjakoboak xextuan
hanka sartzea ere egin det
neronek nere tontuan:
kiloko gatza ere hartu det (bis)
azukrea zalakuan.

A. Egaña

Gizajo honek eraman digu
pizza pila ugaria
sanjakoboen pista ere zen
haundietan nabaria
alper-alperrik azukre edo
gatza erosten aria
sozidadean egin behar du (bis)
kuadrillako afaria.

M. Lujanbio

Kilometro zeroa azelga
eta espinaka berde
toffu ta seitan sei tanta toffu
ere egin ditut nere
gero arraultza ekologiko
eta zenbait alga mehe
gure etxean dena degu "Bio" (bis)
baita abizena ere.

A. Egaña

Horko toffu ta azenarioak
eta pasatu da lasai
baina andre honi nik hartu diot
hainbat inpostura usai
andre hau berez gauza bat degu
eta beste bat azaldu nahi:
andre hau seitan klasika bat da (bis)
ta sei t'erditan ere bai.

BERRIZ

(2018-12-02)

Bertsolariak

M. Arzallus, M. Amuriza, A. Martin eta On. Enbeita

Gai emailea

Maite Berriozabal

Araitx Bizkai eta Gari Otamendi musikariek lagunduta egin zuten "Ez da kasualitatea" jaialdia. Euskaraldia-
ren harira antolatu zuten, kultur etxean.

M. Amuriza

*Gaia: Ikasketak egin nahi zenituen eta egin zenituen. Bikotea nahi zenuen eta baduzu. Lan egonkorra izan
nahi zenuen eta baduzu. Ama izan nahi zenuen eta hala zara. Arrakasta topatu nahi eta baduzu. Edertasuna
nahi eta hala izan. Baina zu hala ere ez zara ondo sentitzen.*

Neurria: Hamabikoa handia
Doinua: Haizea dator ifarraldetik

M. Amuriza

Kalera urten ta emon leike
dena zuzen, dena ongi
inbidia be badakit emon
ahal deutzodana askori.
Ordea etxera bueltan etorri
malko bat eta malko bi
eta gertatzen jatan guztia
ezin kontatu inori.
Ispilu aurrean parau, jertsea
belaunetara erori
begiak itxi ta pentsatzen dot
"Nor da beste aldeko hori?"

Espektatiba guztiak bete
dodaz gaurdaino banan-bana
karrera amaitu, oposaketak
neure postua ta lana
mutil laguna ta furgoneta
kanpinan lagun andana
herriko jende danak ahotan

laudoriotan narama
bi ume txiki egun osoan
"Ama, ama, ama, ama"
hainbeste alditan ze neure izena
ere ahaztu egin dodana.

Hurreratu naz ispilura ta
begipean hiru marka
hara ni zahartuko ez nintzena
nola noan hor bakarka!
Ukabilagaz kolpe bat emon
deutsat aurpegiai zarta!
Ta piztu jata begi ondoan
garai bateko txinparta
urtengo neuke kalera holantxi
oihuka eta oldarka
baina ondino, egia esan
ez naiz behar bezain ausarta.



Emanaldi gidatua. Hondarribia, 2018-11-27
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

DONOSTIA

(2018-12-13)

Bertsolariak

A. Labaka eta A. Egaña

Gai emailea

Agustin Jimenez

"Adin adin" egitasmoa bertsoen bidez adineko pertsonen gaitasuna sustatzeko antolatzen du Lankuk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren babesean. 2018ko azken saioa izan zen Donostiako Zorroaga Zentrokoa.

A. Labaka - A. Egaña

Gaia: Senar-emazteak. Eguraldi kaskarra dago eta Andonik ez du etxetik irten ere egin nahi. Ane kanpora joateko desiratzen dago.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

A. Labaka

Oferta ikusi det
nahiz izan miope
pulserita batekin
eguzkitan tope
bi aukera daukazu
onena zein ote?
Hautatu Tenerife
edo Lanazarote. (bis)

A. Egaña

Ez bat ta ez bestea
ez ditzazket hauta
bi irla hoiien artean
beraz behartuta.
Eta han aspertzen banaiz
gelatan sartuta
ezin neike bueltatu
taxi bat hartuta. (bis)

A. Labaka

Esplikatuko dizut
gertatzen zaidana:

ni etxeko andrea
ni etxeko ama
eta Gabon garaia
bihurtzen zait drama
batzuentzat oporrak
neretzako lana. (bis)

A. Egaña

Hori da nere akats
nere pikardia
txikiteoako maiz
hainbat ausardia
errespetatzen baitut
zure izerdia
aurten nik egingo det
lanaren erdia. (bis)

A. Labaka

Nik ez nuen espero
holako senarrik
laurdena egiteko
ez dezu indarrik
oraingoan ez daukat
nik zure beharrik
Karibera nijoa
ta bakar-bakarrik. (bis)

A. Egaña

Kurrokin liatu da
andrea ospera!
Txantajea egin nahi
nioke oster.
Oparituko dizut
geratzen bazera
ez plastikozkoa bai
urrezko pultsera. (bis)

A. Labaka

Urrezko pultserakin
ez nau erosiko
nere arrazoietan
jarraitzen det tinko
urruti joango naiz
Kuba nahiz Mejiko
ta kontuz: igual ez naiz
berriz itzuliko. (bis)

A. Egaña

Hori onartu behar
nizuke sikira
"Banoa" esan dezu
joan eta aski da.
Gabonek galtzen dute
zeukaten dizdira
turroia ta andrea
gertu ez badira. (bis)



Bizkaiko txapeldun barria. Bilbo, 2018-12-15
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)
Argazkilaria: Lehior Elorriaga

BILBO

(2018-12-15)

Bertsolariak

On. Enbeita, E. Lekue, X. Gallettebeitia, J. Uria, M. Amuriza, N. Ibarzabal, A. Bizkarra
eta E. Abasolo "Abarkas"

Gai emailea

Maite Berriozabal

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren irabazlearen bukaerako agurra.

On. Enbeita

TXAPELDUNAREN AGURRA

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: Larogeita hamar urte

On. Enbeita

Balentin zu izan zinen
gurean lehen txapelduna
gero etorri zan osaben
ta lehengusuen eguna
orain etxeko txikia
bihotza ostu eutsuna
makila eskuan dago
erdi negarrez tuntuna. (bis)
Hamasei urtetik plazan
gaur lora, bihar asuna
zuen altzoan egin naz
ni neska bat ahalduna
sentituarazi nozue
hain etxekoa, kuttuna
plazaz plaza bueltau nahi dot
jaso dodan maitasuna. (bis)

AZPEITIA

(2018-12-20)

Bertsolariak

M. Lujanbio, A. Egaña, A. Salegi, A. Martin, I. Zubeldia eta A. Arzallus

Gai emailea

Haritz Etxeberria "Ministro"

Urtero Txapelen omenezko bertso saioa izaten da Soreasu zineman Santo Tomas festen inguruan.

A. Arzallus

Gaia: Jokoak gaixoturik egon da Amets, apustu hemen eta apustu han. Orain, ludopatia gainditzen ari da. Gaur Azpeitian ireki behar duten apustu etxearen aurkako kontzentrazioan dago.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

A. Arzallus

Inoiz edo behin bonolota
ta astero kiniela
Lagun Onak ta Anaitasuna
bertsolaritza bestela
makinan sartzen nuen txanpona
ezin zelako papela
eta gaur hemen sei pantailekin
zabalduko dute gela
seguru nago hemen norbaitek
irabaziko duela. (bis)

Esaten dute "Apustua da
euskaldunaren kultura"
hala izango da baina heldu arte
ni heldu nintzen puntura.
Norberarentzat zoramena da
etxekoentzat tortura
publizitate publikoa ta
dena dator apustura
negozioa egiten dute
gure gaitzaren kontura. (bis)

Zergaitik dauzkat hankak dardarka?
Zergaitik nago hain mehar?
Zergaitik izan ditut lagunak
eta etxeokak galtzear?
Pedagogia eta hezkuntza
dabil liburuetan zehar
baina hau ez dute kontrolatu nahi
ta gaitza dago lehertzear
ta inork ez badu kontrolatu nahi
ba neu kontrolatu behar. (bis)



Bertso Eguna, jaialdia. Mungia, 2018-01-27. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)



Bat-
bateko
sariketak

GETXO

(2018-02-09)

17. Abra Saria

Bertsolariak

A. Arrizubieta, K. Diaz, M. Lasarte, B. Mujika, L. Ondaro eta A. Ucelay

Gai emalea

Imanol Uria

La Dupla jatetxean egin zen ABRA sariaren hamazazpigarren edizioa.

A. Arrizubieta

Gaia: Sartu zara, baina ez dakizu noiz eta zelan aterako zaren.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: Arratsalde on ta aupa zuek

A. Arrizubieta

Aspaldi egin nuen hontako
beste askok lez aukera
eta guztia mugatu zen hor
telefono dei batera. (bis)
"Bai nahi dut" esan nuen nik gogoz
ta orain pentsatze aldera
esaten dut hemen nago eta
ez dakidala ondo zera
ea ahal den ondo atera
zai nago ta beldurra dut nik orain
nik egiteko aurrera. (bis)

Hau ez da berez gauza normala
baina ez da adikzioa
aspaldi egin nuen hontako
nirekiko elezkioa. (bis)
Aurrera joan behar naiz baina
hasi behar da akzioa
ta ez dakit ikasiko dudan
behingoagatik lekzioa
nahi nuen perfekzioa
baina komenigarri ote da
titi operazioa? (bis)

Imajinatu gero pezoia
insensible daukadala
nire gorputza bilakatuaz
beste batzuentzat gala (bis)
merezi ote du egiteak
pentsatu bezala, hala?
Korrika atera behar ote naiz
orain hemen berehala?
Ez dut nahi artifiziala
gustora nago ta izango naiz
Aroa bat naturala. (bis)

GABIRIA

(2018-04-07)

47. Osinalde Saria

Bertsolariak

P. Abarrategi, E. Pagola, A. Galarza, O. Etxeberria, T. Altube eta A. Servier

Gai emailea

Eñaut Asurabarrena

Ohikoa den bezala, mikrofono eta megafoniarik gabe eta giro oso gertuko eta beroan jardun zuten bertso-lariak.

T. Altube - P. Abarrategi

Gaia: Berrogeita hamar urte daramatzazue elkarrekin ezkontuta. Gaur harremanaren errepasoa egiten hasi zarete.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: Agur sagar beltzaran

T. Altube

Zein gaztaro ederra
zein zahartzaro latza!
Hasieran dena zen
kantu ta jolasa
mila argazkiz josi
genuen *colaggea*

ta hona heldu gara
biok gure kasa
ta azken hogeï urtetan
ez da ezer pasa.

P. Abarrategi

Hasieran gu biok
ilusioz beteta
berrogeitaka urte
aurkituz oreka.
Nahiz ta gure krisiak
izanaz tarteka
zure sabelaldeai
jarriaz arreta
urtu zaizu gaztetan
zeneukan tableta.

T. Altube

Osinalde batean
ezagutu ginen
eta ginen bikote
finenetan finen
bizitzan patxadatsu
ohean arinen.
Nire sabela egin
zait esklabu grinen
ni ere oroitzen naiz
ze ederra zinen!

P. Abarrategi

Osinalden elkartu
ginen bare-bare
ta urte asko pasa
biok parez pare.
Orduan zinen ahots
ezti baten jabe
orain berriz totelka
eta oso grabe
asko galtzen duzu zuk
mikrofono gabe.

T. Altube

Lehen eskatzen zenidan
denak abes nitzan
orain noiz ixilduko
zabiltza peskisan
ta behin sartu garenez
izaren gerizan

kontratuak eskatu
ohi digun gisan
hartu "Gabon. Musu bat.
Ametz onak izan".

P. Abarrategi

Lotara noa ni be
ja ez nauzu jartzen
aspaldian ez didazu
zuk eskurik sartzen.
Gure berotasuna
pixkanaka galtzen
harremana joan zaigu
ziztuan itzaltzen
denbora ez da Txaber
alperrik pasatzen.

E. Pagola

Puntuak erantzuten

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

E. Asurabarrena

Aspaldian larrurik
jo al dezu bate?

E. Pagola

Jode gabiriarrak
kuriosok zerate!
Beti albotik ziri
albotik atake
gaurko planen batian
sartuko al zinake?

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

E. Asurabarrena

Zeinen gauza ederra
den sexu jolasa

E. Pagola

egitea taldean
edo zure kasa
baina urria bada
bestela eskasa
hoberena dezuna
albokora pasa.

ONDARROA

(2018-05-12)

16. Plazatik Gaztetzera

Bertsolariak

J. Bergara, O. Etxeberria, U. Arregi, M. Astigarraga, A. Zubikarai eta A. Beloki

Gai emailea

Alexander Idoeta

Zazpi herritako gazte asanbladek elkarlanean antolatuta egin zen Plazatik Gaztetzera ekimena. Sailkapen saioetan 24 bertsolarik hainbat gaztetzetan kantatu ondoren, finala Ondarroakoan jokatu zen.

J. Bergara – O. Etxeberria

Gaia: Jokin, erretzeari laga nahian zabiltza, baina parrandan Oierri bat eskatu diozu. Ez dizu eman nahi.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Igaran egun batez

J. Bergara

Parrandan dantza, salto
jira eta bira
hamasei kubata ja
hartuak guztira.
Aizu Oier lagunak
laguntzeko dira

ba gutxienez bota
kea aurpegira.

O. Etxeberria

Larunbat iluntzean
egin behar da festa
hortarako didazu
zigarroa eska.
Ez dizut aurpegia
nik egingo kez ba
zuk ez dakizu baina
hobe beharrez da.

J. Bergara

Hor laguntza ematen
zaitut nik ikusi
baina portatzen zabiltz
nahikoa itsusi
hobe beharrez dela
dezu erakutsi
orduan zuk zergatik
ez duzu ba utzi?

O. Etxeberria

Nik erretzen damatzat
horrenbeste urte
baina egunen baten
uztea nahi nuke.
Eskauko zendukenik
ez det bada uste
zure bronkio hoiek
hitz eingo balute.

J. Bergara

Bronkio aldea dut
nahiko itsusia
badirudi hementxe
zara nagusia
kabroikeri hau sarri
daukat ikusia:
berrehun eurorengatik
pakete guzia!

O. Etxeberria

Ingurun bizioa
pakete, botila
ez ehun eurogatik
ez emanda mila

biok hasiko gera
bizi sano bila
ardo kopan itzaliz
Farias *colilla*.

ZARAUTZ

(2018-09-07)

42. Lizardi Saria

Bertsolariak

T. Altube, A. Igartzabal "Potto", I. Irazustabarrena, E. Pagola, A. Salegi eta I. Uria

Gai emailea

Ion Zaldua

Zinema frontoira bueltatu zen Lizardi Sariko finala, eta 200 lagun elkartu ziren bertan saioa entzuteko.

I. Irazustabarrena

Puntua emanda:

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: Orain hasi bihagu

I. Zaldua

Italiak ez du nahi
etorkinik hartu.

I. Irazustabarrena

Ba nik ez dut ulertzen
ta beraz barkatu
ez dira etorkinak
behar da barneratu
zer den etorkin ta zer
errefuxiatu.

A. Salegi – A. Igartzabal

Gaia: Bufete berean lan egiten duzuen bi abokatu zarete. Aitorrek kasu batzuei ezezkoa eman nahi izaten die; Aratzek uste du guztiek onartu behar dituztela.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz
Doinua: Aresoarren bandera

A. Salegi

Oraindik gazte izaki
herabe eta lotsati
karrera egin eta ametsak
ez nitun eraiki
guztia ez da aitzaki
kasuak hautatuz poliki
kasu haundien aurrean sarri
sentitzen naiz txiki. (bis)

A. Igartzabal

Mundua ez da librea
ez zurea ez nirea
bezero orok ez ote dauka
ba eskubidea
baztertu zazu idea
egin dezagun bidea
ehuneko ehunen bete dezagun
gure lanbidea. (bis)

A. Salegi

Eguneroko helburu
ezintasun eta gudu
hain ezberdinak izanagatik
biok buruz buru
zuzendu nahi zaitut mundu
miseriak muga non du?
Ziurtasunik izan ezean
hobe ez lagundu. (bis)

A. Igartzabal

Zabiltza pauso geldoan
ta ez zaigu irtengo doan
trajea jantzi ta ofizina
egunero joan
puntuak eman autoan
inor ez utzi kanpoan
Auzitegia isildu dadin
gu sartutakoan. (bis)

A. Salegi

Betea arau ta lege
zuzentzeko ze interes!
Bai baina joan eta moldatu
ninteke aldrebes.
Nahiz ta laguntzen ari berez
utzi pakean mesedez!
Ta nik ez dizut zuri esango
zer hartu ta zer ez. (bis)

A. Igartzabal

Kasuak daude nahikoak
ta eman pauso tinkoak
guk`e babestu behar ditugu
barru ta kanpoak
askotan politikoak
presoak ta ijitoak
kartzela ez dezan beti probatu
beti-betikoak. (bis)

I. Uria

KARTZELAKO LANA

Gaia: Gorriak ikusi zenituen, baina ez duzu mendekatu nahi.

Neurria: Zortzikoa, berdinarean moldekoa, 6 puntuz
Doinua: Norbere mundu intimo

I. Uria

Oroitzen dut gaztaroan
nola nindoan klasera
aurpegian garau pila
ta Pokemonen bisera.
Izaeraz umil samar
isila bai, baina zera
ez tratatzeko moduan
egin zidaten antzera
ikastolatik atera
eta berriro atzera
negarrez zenbat alditan
itzuli nintzen etxera! (bis)

Nahiz eta institutoan
ingurua bete etsaiz
esan bezala negarrez
nahiz ta etxera joan maiz.

Zorionez aldatu ta
hortik irten nintzen garaiz
gaur aipatzen badidate
azkar aldatu ohi dut gaiz
eta lanera joaten naiz
benetan umore alaiz
eta orduko lagunena
umeen irakasle naiz. (bis)

Mendekuaren lekuan
izango dut hutsunea
ez nuke gura zigortu
tokatu zaidan umea
baina hori bai egingo
dut nire iraultza xumea
gurasoekin bilera
ta heldu denean unea
esan diot aurpegira
galduta begirunea:
"Lasai ni ez naiz izango
zu bezain putakumea". (bis)



HAZPARNE

(2018-10-06)

12. Hernandorena Bertsu Sariketa. Finala

Bertsolariak:

A. Galarza, A. Servier, J. Gurrutxaga, T. Altube, M. Akizu, eta E. Pagola

Gai emailea:

Julen Vrignon

Ttattola gaztetxean jokatu zen, 21:00etatik aitzina. Sari ematera, besteak beste, Teodoro Hernandorenaren senitartekoak inguratu ziren.

A. Servier

Hitza: Egunsentia

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

A. Servier

Kuraiak egin zuen kantu bat
gogoangarri, itzela
itsasertzetik ikus dezaket
edo Baiguran bestela
ortzimugari so pentsalari
bi begiak mela-mela.
Jakinagatik momentu hori
poetaren gaia dela
aitortuko dut egunsentiak
lo harrapatzen nauela.

E. Pagola

Gaia: Gaztea izateak beti ukan du borrokarekin eta errebeldiarekin zerikusia. Egungo ikuspegitik, zuretzat zer da gazte izatea?

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: Goizean altxatu eta

E. Pagola

Lehen dena mutur jotzea
lehen guztia trifulka
gero hitzera zabaldu
zigutenean disputa
beti gutxietsiak ta
zoko batean ahaztuta.
"Zer esango digu horrek
urte nahikorik ez du ta".
Hitza jakintzagatikan
orduan nola ez uka?
Nahiz eta urterik urte
mantendu degun burruka (bis)
handik ez bada hemendik
baina beti zapalduta.

Baneza eta banitza
noiztik ez gera jardun?
Sekula ez gera batzen
lehen behar adina lagun.
Sarritan egiten degu
ta berriz egin dezagun
baina ezkortasunean
ez al gara bizi egun?
Hitzak urre gorritz bete
baina esaldiak lurrun
ametsak jartzen ditugu
ahal delarik oso urrun (bis)
eta ez gera ohartzen
zenbat egin dezakegun.

Hitzak errex doazela
nik'e badakit hainbeste
bebingoagatik kritiko
ere ipini gaitzke.
Beti gaude negarrean
beti eskubide eske
ai harek egin balira!
Txikiak gera, hau ta beste!

Baina onartu dezagun
ez gabiltza hain desastre
gure txikian gerala
autonomo eta aske (bis)
aprobetxatu dezagun
ez gera betiko gazte.

ARAMAIO

(2018-10-19)

Bertsolariak

M. Abarrategi, H. Arana, A. Arriolabengoa, T. Altube, A. Ugarte, A. Zuazubizkar, M. Arregi, J. Labayen, P. Amilburu, A. Esteban, P. Abarrategi eta M. Berrizbeitia

Gai emaileak

Manex Agirre eta Xabi Igoa

Lehenengo aldiz antolatu zuten kopla txapelketa Aramaion. Bertsolari parte-hartzaileak Aramaio eta herri mugakidekoak izan ziren, eta "guest starring" moduan beste bat gonbidatu zuten. Aurrena kaleetan zehar aritu ziren, finala afal ondoren Iturrieta sagardotegian jokatzeko. Publikoak erabaki zuen nortzuk jokatu buruz burukoa (J. Labayen eta M. Arregi) eta nori eman irabazlearen saria (M. Arregi). Kopla kantua musikaz lagunduta egin zuten: klean Maialen Ballina eta Amaia Arregi eta sagardotegian Jon Aranburu eta Ekaitz Aranberri.

M. Arregi

Gaia: Ispilu aurrean jarri zara, eta aspaldiko partez ikusten duzuna atsegin duzu.

Neurria: Lauko berdina
Doinua: Askok irudipena du

M. Arregi

Askok irudipena du
nik ez dut irudipenik (bis)
gaurkoan nik ez dut uste
hain itsusia naizenik. (bis)

Begiratzen ditut hankak
begiratzen dut sabela (bis)
ez naiz perfektua baina
gustora nago horrela. (bis)

Behingoagatik pozik nago
beitzen nere buruari (bis)
nahiz ta lehen izan nituen
noski konpleju ugari. (bis)

Diskurtso bat gure kontra
telebista duna lagun: (bis)
gure gorputza kritika
eta gorrota dezagun. (bis)

Emakume izateko
izan behar zara guapa (bis)
ta mierda guzti hoieri
egin gura diet "Kaka!". (bis)

Ez naiz horren guapa baina
neri ez zait falta ahotsik (bis)
nere burua onartu
ta hola bizi naiz pozik. (bis)

Nik nerea onartzen dut
lehen esan dudan bezala (bis)
eta orain erronka da
jendeak onar nazala. (bis)



Bertso Eguna, bazkaria. Mungia, 2018-01-27. Iturria: Xenpelar Dokumenta-zio Zentroa (XDZ)

Bertso
saioen
mugimendua



2018ko bertso saioen informazioa

EUSKAL HERRIA

	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldi-pekkoa	Eskekoa	Didakti-koa	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiake-ta	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Araba	18	31	30	5	1	1	31	13	0	26	4	160
Baxena-barre	1	3	4	2	0	0	6	2	0	2	0	20
Bizkaia	72	94	87	11	0	2	27	38	4	58	11	404
Gipuzkoa	124	178	195	22	10	2	14	47	9	127	17	745
Lapurdi	6	18	13	1	1	2	11	3	0	16	1	72
Nafarroa	25	43	81	4	3	0	2	10	2	30	9	209
Zuberoa	0	1	3	0	0	0	1	0	0	0	0	5
Guztira	246	368	413	45	15	7	92	113	15	259	42	1615

ARABA

	Jaialdia	Plaza librea	Lgun-artekoa	Ekitaldi-pekkoa	Eskekoa	Didakti-koa	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiake-ta	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Aiaraldea	3	6	4	1	0	0	4	0	0	5	1	24
Arabako Errioxa	0	4	3	0	0	0	3	0	0	1	0	11
Arabako Lautada	1	6	2	1	0	0	5	1	0	5	0	21
Arabako Mendialdea	0	2	3	0	0	0	3	1	0	2	0	11
Añanaldea	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	3
Gasteizaldea	11	4	6	2	0	1	7	6	0	9	2	48
Gorbeia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Trebiñuko Konde-rria	1	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3
Zuia-Gorbeialdea	2	5	11	1	1	0	9	5	0	4	1	39
Guztira	18	31	30	5	1	1	31	13	0	26	4	160

BAXENABARRE

	Jaialdia	Plaza librea	Lgun-artekoa	Ekitaldi-pekkoa	Eskekoa	Didakti-koa	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiake-ta	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Agaramont	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Amikuze	0	2	1	0	0	0	1	1	0	0	0	5
Arberoa	0	1	1	0	0	0	1	0	0	0	0	3
Baigorri-Ortzaize	1	0	1	1	0	0	2	1	0	0	0	6
Garazi	0	0	1	1	0	0	2	0	0	1	0	5
Irati	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Oztibarre	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	1
Guztira	1	3	4	2	0	0	6	2	0	2	0	20

BIZKAIA

	Jaialdia	Plaza librea	Lgun-artekoa	Ekitaldi-pekkoa	Eskekoa	Didakti-koa	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiake-ta	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Arratia-Nerbioi	3	12	10	0	0	0	4	1	0	6	0	36
Bilboalde	21	22	19	3	0	1	5	13	0	20	6	110
Busturialdea	7	5	17	1	0	0	2	7	2	3	0	44
Durandaldea	15	11	11	1	0	1	5	5	0	8	4	61
Enkarterri	1	1	4	1	0	0	2	1	0	0	0	10
Lea-Artibai	5	13	7	2	0	0	4	4	1	10	0	46
Uribe-Butro	9	12	11	1	0	0	1	1	1	5	1	42
Uribe-Kosta	11	18	8	2	0	0	4	6	0	6	0	55
Guztira	72	94	87	11	0	2	27	38	4	58	11	404

GIPUZKOA

	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldi-pekoea	Eskekoa	Didakti-koia	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Bida-soaldea	15	16	9	2	0	0	0	2	0	2	0	46
Buruntzaldea	15	22	20	6	1	0	2	3	1	10	2	82
Deba-barrena	8	22	12	2	3	0	2	4	0	4	2	59
Deba-goiena	11	12	16	2	0	0	2	8	0	11	1	63
Donostialdea	13	23	20	3	0	0	0	2	2	18	3	84
Goierri	13	28	43	0	1	0	1	7	2	24	1	120
Oarsoaldea	6	10	13	0	1	2	1	4	1	6	0	44
Tolosaldea	23	25	30	2	2	0	2	3	1	32	7	127
Urola Kosta	20	20	32	5	2	0	4	14	2	20	1	120
Guztira	124	178	195	22	10	2	14	47	9	127	17	745

LAPURDI

	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldi-pekoea	Eskekoa	Didakti-koia	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Biarritz-Angelu-Baiona	2	5	1	0	0	0	3	0	0	9	1	21
Lapurdi Behera	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1
Lapurdi Ekialdea	0	3	2	0	0	0	1	1	0	1	0	8
Lapurdi Erdialdea	1	1	1	0	0	0	0	0	0	2	0	5
Lapurdi Garaia	1	2	0	0	0	0	2	1	0	1	0	7
Lapurdi Itsasegia	2	7	9	1	1	1	5	1	0	3	0	30
Guztira	6	18	13	1	1	2	11	3	0	16	1	72

NAFARROA

	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldi-pekoea	Eskekoa	Didakti-koia	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Aralar	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Erriberriko Merinda-dea	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Iruñeko Merinda-dea	25	37	74	3	3	0	2	9	2	26	8	189
Lizarrako Merinda-dea	0	2	1	0	0	0	0	1	0	2	1	7
Tuterako Merinda-dea	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Zangozako Merinda-dea	0	3	6	1	0	0	0	0	0	2	0	12
Guztira	25	43	81	4	3	0	2	10	2	30	9	209

ZUBEROA

	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldi-pekoea	Eskekoa	Didakti-koia	Txa-pelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia	Hitzaldia	Guztira
Arbaila	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	2
Basa-bürüa	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	2
Pettarra	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Guztira	0	1	3	0	0	0	1	0	0	0	0	5



Afal ostein. Lezo, 2018-01-26. Iturria: Xenpelar Dokumenta-zio Zentroa (XDZ)

Tauletako kontzeptuen azalpena



Jaialdiak:	Hiru bertsolari edo gehiago eta gaiak emanda.
Plaza librekoak:	Bi-hiru bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartekoak:	Jatordu giroan edo lagun-arteko giroetan egindako saioak.
Eskekoak:	Etkez etxe eskean egindakoak.
Didaktikoak:	Bertsolaritzaren inguruko helburu didaktikoa dutenak.
Ekitaldipekoak:	Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...).
Txapelketak:	Bat-bateko lehia: Euskal Herrikoa, herrialdeetakoak edo eskolartekoak.
Sariketak:	Bat-bateko lehia, herrialde mailako lehia izan gabe. Kultur elkarteek, udalek eta bestelako taldeek antolatuak edo motibo jakin baten inguruan jokatzeko direnak.
Lehiaketak:	Bertso idatzien lehiaketen inguruan antolatutakoa: sari-ematea, parte hartutako bertso-idatzien emanaldia, ...
Bereziak:	Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak.
Hitzaldiak:	Bertsolaritzaren inguruan antolatutako hitzaldiak edo ikastaroak, edozein mar kotan antolatuak.

Herrialdeak

Araba:

Aiaraldea:	Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio, Okondo
Añanaldea:	Armiñon, Añana, Berantevilla, Erriberabeitia, Erriberagoitia, Gaubea, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Zandruna
Arabako Errioxa:	Bastida, Bilar, Ekora, Eltziego, Guardia, Kripan, Eltziego, La Puebla de Leza, Mañueta, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego, Villabuena
Arabako Lautada:	Agurain, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Burgu, Donemillaga, Dulantzi, Iraitz-Gauna, Zalduondo
Arabako Mendialdea:	Arraia-Maeztu, Bernedo, Harana, Kanpezu, Langran, Urizaharra
Gasteizaldea:	Arana, Gasteiz, Abetxuku, Gamarra Nagusia, Uribarri Dibiña...

Trebiñuko Conderria: Argantzun, Trebiñu

Zuia-Gorbeialdea: Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia

Baxenabarre:

Agaramont: Akamarre, Bidaxune, Burgue-erreiti, Erango, Samatze

Amikuze: Aiziritze-Gamue-Zohazti, Amendüze-Unaso, Amоротze-Zokotze, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Arrueta-Sarrikota, Behaskane-Laphizketa, Behauze, Bithiriña, Donapaleu, Gabadi, Garruze, Ilharre, Labetze-Bizkai, Larribarre-Sorha puru, Lukuze-Altzumarta, Martxueta, Oragarre, Ostankoa, Uhartehiri

Arberoa: Aiherra, Armendaritze, Bastida, Donamartiri, Donoztiri, Heleta, Iholdi, Irisarri, Izturitze, Mehaine

Baigorri-Ortzaize: Aldude, Anhauze, Arrosa, Azkarate, Baigorri, Banka, Bidarra, Irulegi, Lasa, Ortzaize, Urepele

Garazi: Donibane Garazi, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Ainhize-Monjolose, Aintzila, Arnegi, Behorlegi, Buztintze-Hiriberri, Donazarre, Duzunaritze-Sarasketa, Eiheralare, Ezterenzubi, Gamarte, Izpura, Lakarra, Lekunberri, Mendibe, Suhuskune, Zaro, Jatsu, Uharte-Garazi

Oztibarre: Arhantsusi, Bunuze, Donaixti-Ibarre, Hozta, Ibarrola, Izura-Azme, Jutsi, Larzabale-Arroze-Zibitze

Bizkaia:

Arratia-Nerbioi: Arakaldo, Arantzazu, Arrankudiaga, Arteaga, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Orozko, Otxandio, Ubide, Ugao, Urduña, Zeanuri, Zeberio

Bilboaldea: Alonsotegi, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Zaratamo

Busturialdea: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta

Durangaldea: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Malla-bia, Mañaria, Zaldibar, Zornotza

Enkarterri: Abanto-Zierbena, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Muskiz, Ortuella, Sopuerta, , Trapagaran, Turtzioz, Zalla

Lea-Artibai: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxabarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar,

Uribe-Butroe: Arrieta, Bakio, Derio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Jatabe, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Meñaka, Morga, Mungia, Sondika, Zamudio

Uribe-Kosta: Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz

Gipuzkoa:

Bidasoaldea: Hondarribia eta Irun.

Buruntzaldea: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil

Debabarrena: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze

Debagoiena: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati

Donostialdea: Donostia

Goierri: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga

Oarsoaldea: Errenteria, Lezo, Oiartzun Pasaia

Tolosaldea: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Urola Kosta: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia

Lapurdi:

Biarritz, Angelu, Baiona

Lapurdi Beherea: Hiriburu, Lehuntze, Milafranga, Mugerre, Urketa

Lapurdi Ekialdea: Ahurti, Bardoze, Beskoitze, Gixune, Hazparne, Lekorne, Lekuine, Makea

Lapurdi Erdialdea: Ahetze, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Haltsu, Jatsu, Larresoro, Senpere, Uztartze

Lapurdi Garaia: Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, Kanbo, Luhuso, Sara, Zuraide

Lapurdi Itsasegia: Azkaine, Bidarte, Biriatu, Donibane Lohizune, Getaria, Hendaia, Urruña, Ziburu

Nafarroa:

Erriberriko Merindadea: Artaxoa, Azkoien, Caparroso, Erriberri, Faltzes, Funes, Leotz, Martzilla, Mendi-gorria, Milagro, Miranda Arga. Miranda El Cuende, Miranda El Fruto, Orbaibar, San Martin Unx, Santakara, Tafalla, Uxue

Iruñeko Merindadea: Basaburua, Baztan, Zugarramurdi, Bortziriak, Etxauribar, Gares, Iruñerria, Itza, Larraunalde, Leitzalde, Malerreka, Oltza Zendea, Sakana, Txulapain, Ultzamaldea

Lizarrako Merindadea: Ameskoa, Armañanzas, Azuelo, Deierri, Doneztebe-Iguzkitza, Egaibar, El Busto, Genevilla, Iguskitzaibar, Lana, Lapoblacion, Lizarra, Lizarrako Erribera, Los Arcos, Marañon, San Adrian, Viana, Zirauki

Tuterako Merindadea: Ablitas, Alesdes, Arguedas, Barillas, Buñuel, Cadreita, Cascante, Castejon, Cintruénigo, Corella, Cortes, Erripazuloaga, Fitero, Fontellas, Fustiñana, Melida, Monteagudo, Murchante, Sartaguda, Tulebras, Tuter, Valtierra, Zarrakaztelu

Zangozako Merindadea: Aezkoa, Agoitz, Ardaitz, Artzibar, Auritz, Bizkarret-Gerendain, Erroibar, Erronkariko Ibarra, Esteribar, Ibargoiti, Irunberri, Lizoainibar, Longide. Luzaide, Orreaga, Zangozaldea, Zaraitzu, Zilbeti

Zuberoa:

Arbaila: Alzuruku, Arrokiaga, Garindaine, Gotaine-Iribarne, Idauze-Mendi, Mendikota, Muskildi, Ozaze-Zühura, Pagola, Urdiñarbe, Zalgize-Donztebe,

Basabürüa: Aloze-Ziboze-Onizegaine, Itzai-Altzabeheti-Zunharreta, Atharratze-Sorholüze, Barkoxe, Eskiula, Etxebarre, Gamere-Zihiga, Hauze, Iruri, Lakarri-Arhane-Sarriko tagaine, Larraine, Eskiula, Etxebarre, Gamere-Zihiga, Hauze, Iruri, Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine, Larraine, Lexantzü-Zunharre, Ligi-Atherei, Liginaga-Astüe, Montori, Santa Grazi

Pettarra: Ainharbe, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Berrogaine-Larüntze, Bildoze-Onizepea, Domintxaine-Berroeta, Etxarri, Ezpeize-Ündüreine, Jeztaze, Lohitzüne-Oihergi, Maule-Lextarre, Mitikile-Larriori-Mendibile, Ospitalepea, Ozaraine-Erribareita, Sarrikotapea, Sohüta, Ürrüstoi-Larrabile



Udalekuak Orion. Orio, 2018-07-13. Iturria: Xenpelar Dokumen-tazio Zentroa (XDZ)



Aldizkako
ekitaldiak:
txapelketak,
sariaketak eta
lehiaketak

Aldizkako Ekitaldiak deritzon atalean tarteka antolatzen diren ekitaldien berri jasotzen da. Bertsolaritza sustatu eta biziberritzeko tresnatzat hartu izan dira sarritan, bai historian zehar baita gaur egun ere, izaten duten eraginagatik. Hainbat motatakoak izan daitezke bakoitzak jarritako helburuen arabera (bertsolaritza ezagutzera emateko eta prestigioa sortzeko, bertsolari gazteak ezagutarazteko, eta abar), eta ezaugarrien arabera: hedadura maila, sailkapen modua, lehiakortasun maila, maiztasuna, eta abar. Bertsolaritzaren Datu-Basearen bidez orain arte Xenpelar Dokumentazio Zentroan jaso diren aldizkako ekitaldien informazioa jaso daiteke, helbide honetan: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa>

2018 urtean zehar izan diren txapelketa, sariketa eta lehiaketei buruzko informazioa hau da:

A. Txapelketak

Euskal Herri mailan edo herrialde mailan antolatzen diren bat-bateko lehiak. 2018. urtean honako hauek izan ziren:

Herrialde mailako txapelketak:

- [Bizkaiko Bertsolari Txapelketa \(17. 2018\)](#)
- [Taldekako Xilaba. Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Taldekako Bertsolari Txapelketa \(6. 2018\)](#)

Eskolarteko txapelketak:

- [Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(23. 2018\)](#)
 - [Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(35. 2018\)](#)
 - [Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(38. 2018\)](#)
 - [Iparraldeko Bertsolari Gazteen Txapelgoa \(25. 2018\)](#)
 - [Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(32. 2018\)](#)
 - [Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(30. 2018. Sara\)](#)
1. Herrialde mailako lehiarik gabeko ekitaldiak:
 - [Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa \(5. 2018\)](#)
 - [Bardoak: Nafarroako taldekako bertso ekimena \(4. 2018\)](#)

B. Sariketak

Eremu txikiagoan edo berezitasunen batekin antolatutako bat-bateko lehiak. 2018. urtean honako hauek izan ziren:

- [Abra Saria \(17. 2018. Getxo\)](#)
- [Akerbeltz Bertso Txapelketa \(10. 2018. Markina-Xemein\)](#)
- [Aramaioko Kopla Txapelketa \(1. 2018. Aramaio\)](#)
- [B-Lañon Sariketa \(5. 2018. Gernika\)](#)
- [Barañaingo bertso kopla txapelketa \(5. 2018. Barañain\)](#)
- [BBK Sariketa \(26. 2018\)](#)
- [Bergarako Bertsolari Txapelketa Nagusia \(5. 2018. Bergara\)](#)
- [Berritxu Saria \(23. 2018. Berriatua\)](#)
- [Bertso Erronda \(2. 2018. Bilbo\)](#)

- [“Bertso txiki, saio handi” bertso desafioa \(3. 2018. Zerain\)](#)
- [Bertsokatu Txapelketa \(8. 2018. Gasteiz\)](#)
- [Bertsotruk. Euskal Herriko Bertso Eskolen arteko desafioak \(3. 2017-2018\)](#)
- [Bertsotan Jai! Herriko Bertsolarien Taldekako Txapelketa \(7. 2018. Zumaia\)](#)
- [Bertxoko Sariketa \(9. 2018\)](#)
- [Bilboko Aste Nagusiko Bertsolari Gazteen Sariketa \(1. 2018. Bilbo\)](#)
- [Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak. Busturialdeko Bertsolari Txapelketa \(2. 2018\)](#)
- [Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak. Enkarterriko Bertsolari Txapelketa \(1. 2018\)](#)
- [Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak. Uribe-Butroeko Bertsolari Txapelketa \(2. 2018\)](#)
- [Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak. Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa \(2. 2018\)](#)
- [Bortzirietako Bertso-Eskolaren Txapelketa \(20. 2018\)](#)
- [Durangaldeko Kopla Txapelketa \(5. 2018. Elorrio\)](#)
- [Erniarraitz Bertso Kopa \(3. 2018. Azkoitia\)](#)
- [Erniarraitz Sariketa \(9. 2018\)](#)
- [Galarrena Kopla Txapelketa \(3. 2018. Lekeitio\)](#)
- [Hernandorena Saria \(12. 2018\)](#)
- [Lizardi Saria \(42. 2018. Zarautz\)](#)
- [Mallabiko Bertsolari Gazteen Txapelketa \(4. 2018. Mallabia\)](#)
- [Martxoan Bertsoa : Taldekako Bertsolari Txapelketa \(16. 2018\)](#)
- [Mariano Izeta \(8. 2018. Elizondo\)](#)
- [Mauri-Apolo Bertso Sariketa \(3. 2018. Bilbo\)](#)
- [Mikel Laboa Bertsolari Txapelketa \(7. 2018. Donostia\)](#)
- [Orixe Saria \(16. 2018. Donostia, Añorga\)](#)
- [Osinalde Saria \(47. 2018. Gabiria\)](#)
 - [Argi Berri Saria \(21. 2018. Ordizia\)](#)
 - [Osin Berde Saria \(6. 2018. Zaldibia\)](#)
 - [Aztiri Saria \(19. 2018. Gabiria\)](#)
- [Pello Errota Bertso Sariketa \(1. 2018\)](#)
- [Plazatik Gaztetxera \(16. 2018\)](#)
- [Tabernetako bertsolarien sariketa \(24. 2018. Hernani\)](#)
- [Txinparta Gazte Sariketa \(1. 2018. Oñati\)](#)
- [Xenpelar Saria \(24. 2018. Erreterria\)](#)
- [Zarauzko Kopla Txapelketa \(12. 2018. Zarautz\)](#)

C. Lehiaketak

- [Altzako Bertso-Paper Lehiaketa \(8. 2018. Donostia\)](#)
- [Amarako Bertso Paper Lehiaketa \(1. 2018. Donostia\)](#)
- [Arrasate Bertso-Paper Lehiaketa \(31. 2018. Arrasate\)](#)
- [Azkoitia BHI Bertso-Paper Lehiaketa \(27. 2018. Azkoitia\)](#)
- [Barañaingo Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Lehiaketa \(29. 2018. Barañain\)](#)
- [Basarri Saria \(34. 2018. Zarautz\)](#)

- [Baztan Bidasoako Bertso-Paper Lehiaketa \(31. 2018. Bera\)](#)
- [Beasain Idazlehiaketa \(28. 2018. Beasain\)](#)
- [Belarrioren omenezko Bertso-paper Txapelketa \(1. 2018. Zarautz\)](#)
- [Bertsoa Bizi Gazte bideoklip lehiaketa \(2. 2018. Araba\)](#)
- [Bertsolaritzen \(21. 2018. Mendata\)](#)
- [Bertsomovieda! \(7. 2018. Beasain\)](#)
- [Bota Bertsoa! \(4. 2018\)](#)
- [Bota Bi Kopla! Lehiaketa \(2. 2018. Zumaia\)](#)
- [Egile Berrientzako Literatur Lehiaketa \(28. 2018. Iruñea\)](#)
- [Garriko Bertsolari Eguna: Bertso Idatzien Sariketa \(31. 2018. Muxika\)](#)
- [Getariako Literatur Lehiaketa \(17. 2018. Getaria\)](#)
- [Ibon Zabala Saria \(20. 2018. Erretereria\)](#)
- [“Joxean Ormazabal” ipuin, bertso eta marrazki lehiaketa \(15. 2018. Segura\)](#)
- [Iparragirre Saria: Bertso, Narratiba eta Poesia \(2018. Zumarraga-Urretxu\)](#)
- [Iurretako Literatur Lehiaketa \(15. 2018. Iurreta\)](#)
- [Julene Azpeitia Ipuin eta Bertso Lehiaketa \(20. 2018. Durango\)](#)
- [Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa \(33. 2018. Bergara\)](#)
- [Koldo Mitxelena Literatur Saria \(29. 2018. Donostia\)](#)
- [Lazkao-Txiki Bertso-Paper Lehiaketa \(27. 2018. Ordizia\)](#)
- [Loramendi Literatura Lehiaketa \(29. 2018. Aretxabaleta\)](#)
- [Merkataritza euskararekin Bertso Paper Lehiaketa \(3. 2018. Markina-Xemein\)](#)
- [Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketa \(5. 2018. Zizurkil\)](#)
- [San Andres Bertso-Paper Lehiaketa \(24. 2018. Eibar\)](#)
- [San Antontxu Bertso-paper Lehiaketa \(20. 2018. Mungia\)](#)
- [San Telmo Literatur Saria \(35. 2018. Zumaia\)](#)
- [Santixabel Bertso-Paper Lehiaketa \(42. 2018. Usurbil\)](#)
- [Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko Bertso-Paper Lehiaketa \(31. 2018. Urretxu-Zumarraga\)](#)
- [Zapirain Anaiak Bertso-Paper Lehiaketa \(30. 2018. Erretereria\)](#)

A. Txapelketak

Herrialde mailako txapelketak:

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa (17. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2575-bizkaiko-bertsolari-txapelketa-17-2018>

Maiztasuna: Bi urtez behin

Hedadura: Bizkaia

Antolatzailea: Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Webgunea: <https://www.bertsozale.eus/eu/bizkaia/bizkaiko-bertsolari-txapelketa>

Txapelduna: [Onintza Enbeita](#)

Faseak/Saioak:

Udabarriko fasea:

[2018-04-14 Bilbo Txapelketa](#)

[2018-04-15 Derio Txapelketa](#)

[2018-04-21 Otxandio Txapelketa](#)

[2018-04-22 Ondarroa Txapelketa 12:00](#)

[2018-04-22 Ondarroa Txapelketa 17:30](#)

[2018-04-28 Gautegiz Arteaga Txapelketa](#)

[2018-05-06 Balmaseda Txapelketa](#)

[2018-05-12 Elorrio Txapelketa](#)

[2018-05-13 Getxo Txapelketa 12:00](#)

[2018-05-13 Getxo Txapelketa 17:30](#)

[2018-05-19 Areatza Txapelketa](#)

[2018-05-20 Erandio Txapelketa](#)

[2018-05-26 Abadiño Txapelketa](#)

Kanporaketak:

[2018-10-06 Gernika-Lumo Txapelketa](#)

[2018-10-14 Santurtzi Txapelketa](#)

[2018-10-21 Zornotza Txapelketa](#)

[2018-10-28 Plentzia Txapelketa](#)

[2018-11-04 Berriatua Txapelketa](#)

Finalaurreak:

[2018-11-18 Berriz Txapelketa](#)

[2018-11-25 Igorre Txapelketa](#)

[2018-12-01 Lekeitio Txapelketa](#)

Finala:

[2018-12-15 Bilbo Txapelketa](#)

Taldeakako Xilaba. Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Taldeakako Bertsolari Xapelketa (6. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2579-taldeakako-xilaba-xiberoa-lapurdi-eta-baxenabarreko-taldeakako-bertsolari-xapelketa-6-2018>

Maiztasuna: Bi urtez behin

Hedadura: Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Antolatzailea: Bertsularien Lagunak

Webgunea: <https://www.bertsozale.eus/eu/xiberoa-lapurdi-baxenabarre/xilaba-2018/>

Txapelduna: Mattinsalto taldea: [Xumai Murua](#), [Aitor Servier](#), [Ellande Alfaro](#), [Pantxika Solorzano](#)

Faseak/Saioak:

Lehen fasea:

[2018-10-12 Gamere Txapelketa](#)

[2018-10-13 Altzümarta Txapelketa](#)

[2018-10-19 Heleta Txapelketa](#)

[2018-10-19 Sara Txapelketa](#)

[2018-10-26 Urruña Txapelketa](#)

[2018-10-26 Urruña Txapelketa](#)

[2018-11-03 Donibane Garazi Txapelketa](#)

[2018-11-16 Hendaia Txapelketa](#)

[2018-11-17 Azkaine Txapelketa](#)

Finalerdiak:

[2018-11-23 Suhuskune Txapelketa](#)

[2018-11-24 Baiona Txapelketa](#)

Finala:

[2018-12-01 Baigorri Txapelketa](#)

Eskolarteko txapelketak:

Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa (23. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2545-arabako-eskolarteko-bertsolari-txapelketa-23.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Araba

Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte, Ikastolen Elkartea

Txapelduna: [Aitor Ugarte](#)

Faseak/Saioak:

[2018-05-12 Legutio Eskolartekoa](#)

Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa (35. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2544-bizkaiko-eskolarteko-bertsolari-txapelketa-35.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Bizkaia

Antolatzailea: Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Ikastolen Elkarte

Txapelduna: [Gorka Pagonabarraga](#)

Faseak/Saioak:

Kanporaketak:

[2018-04-19 Bilbo Eskolartekoa](#)

[2018-04-23 Durango Eskolartekoa](#)

[2018-04-24 Getxo Eskolartekoa](#)

[2018-04-25 Lemoa Eskolartekoa](#)

Finala:

[2018-05-06 Balmaseda Eskolartekoa](#)

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa (38. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2536-gipuzkoako-eskolarteko-bertsolari-txapelketa-38.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Gipuzkoa

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsozale Elkartea, Ikastolen Elkartea

Txapelduna: [Oihana Arana](#)

Faseak/Saioak:

[2018-02-16 Zestoa Eskolartekoa](#)

[2018-02-23 Oñati Eskolartekoa](#)

[2018-03-02 Orio Eskolartekoa](#)

[2018-03-06 Lezo Eskolartekoa](#)

[2018-03-07 Hernani Eskolartekoa](#)

[2018-03-08 Tolosa Eskolartekoa](#)

[2018-03-09 Ereñotzu Eskolartekoa](#)

[2018-03-09 Zumarraga Eskolartekoa](#)

[2018-03-13 Arrasate Eskolartekoa](#)

[2018-03-14 Elgoibar Eskolartekoa](#)

[2018-03-15 Azpeitia Eskolartekoa](#)

[2018-03-16 Orio Eskolartekoa](#)

Finala:

[2018-04-20 Itziar Eskolartekoa](#)

Iparraldeko Bertsulari Gazteen Xapelgoa (25. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2546-bertsulari-gazteen-xapelgoa-25.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarra

Antolatzailea: Bertsularien Lagunak, Ikastolen Elkartea

Txapelduna: [Elixabet Etxandi](#)

Faseak/Saioak:

[2018-05-19 Hazparne Eskolartekoa](#)

Nafarroako Eskolarteko Bertsulari Txapelketa (32. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2537-nafarroako-eskolarteko-bertsulari-txapelketa-32.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Nafarroa

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea, Ikastolen Elkartea

Txapelduna: Xabat Illarregi

Faseak/Saioak:

[2018-04-20 Iruñea Eskolartekoa](#)

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsulari Txapelketa (30. 2018. Sara)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2547-euskal-herriko-eskolarteko-bertsulari-txapelketa-30.-2018.-sara>

Maiztasuna: Urtero

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Bertsozale Elkartea, Ikastolen Elkartea

Txapelduna: [Gorka Pagonabarraga](#)

Faseak/Saioak:

[2018-06-09 Sara Eskolartekoa](#)

Herrialde mailako lehiarik gabeko ekitaldiak:

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa (5. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2522-arabako-bertso-kuadrilla-artekoa-5-2018>

Hedadura: Araba

Antolatzailea: Arabako bertso-eskolak, Arabako Bertsozale Elkartea

Irabazleak: "Ibabeko Bertaren bilobak" (Aramaio)

Faseak/Saioak:

[2018-01-19 Gasteiz Txapelketa](#)

[2018-01-19 Aramaio Txapelketa](#)

[2018-01-19 Atauri Txapelketa](#)

[2018-01-19 Gasteiz Txapelketa](#)

[2018-01-20 Gasteiz Txapelketa](#)

[2018-01-26 Aramaio Txapelketa](#)

[2018-01-27 Oion Txapelketa](#)

[2018-01-27 Agurain Txapelketa](#)

[2018-02-02 Laudio Txapelketa](#)

[2018-02-03 Legutio Txapelketa](#)

[2018-02-03 Gasteiz Txapelketa](#)

[2018-02-03 Izarra Txapelketa](#)

[2018-02-03 Gasteiz Txapelketa](#)

[2018-02-04 Zalduondo Txapelketa](#)

Finalaurrekoak:

[2018-02-17 Araia Txapelketa](#)

[2018-02-24 Amurrio Txapelketa](#)

[2018-03-03 Aramaio Txapelketa](#)

Finala:

[2018-03-17 Gasteiz Txapelketa](#)

Bardoak : Nafarroako taldekako bertso ekimena (4. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2527-bardoak-nafarroako-taldekako-bertso-ekimena-4.-2018>

Hedadura: Nafarroa

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea

Irabazleak: "Aldatzea Komeni" (Leitza)

Faseak/Saioak:

Lehen fasea:

[2018-02-02 Bera Lagun-artekoa](#)

[2018-02-03 Iruñea Lagun-artekoa](#)

[2018-02-03 Leitza Lagun-artekoa](#)

[2018-02-04 Barañain Lagun-artekoa](#)

[2018-02-09 Lesaka Lagun-artekoa](#)

[2018-02-09 Lakuntza Lagun-artekoa](#)

[2018-02-09 Otsagabia Lagun-artekoa](#)

[2018-02-10 Barañain Lagun-artekoa](#)

[2018-02-10 Errazkin Lagun-artekoa](#)

[2018-02-11 Barañain Lagun-artekoa](#)

[2018-02-16 Altsasu Lagun-artekoa](#)

[2018-02-16 Lizarra Lagun-artekoa](#)
[2018-02-16 Iruñea Lagun-artekoa](#)
[2018-02-17 Iruñea Lagun-artekoa](#)
[2018-02-17 Garralda Lagun-artekoa](#)
[2018-02-17 Elgorriaga Lagun-artekoa](#)

Bigarren fasea:

[2018-03-02 Iruñea Lagun-artekoa](#)
[2018-03-02 Bera Lagun-artekoa](#)
[2018-03-04 Aldatz Lagun-artekoa](#)
[2018-03-09 Erratzu Lagun-artekoa](#)
[2018-03-09 Leitza Lagun-artekoa](#)
[2018-03-11 Lesaka Lagun-artekoa](#)

Finala:

[2018-03-24 Lekunberri \(N\) Txapelketa](#)

B. Sariketak

Abra Saria (17. 2018. Getxo)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2529-abra-saria-17.-2018.-getxo>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Getxo

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Algortako Bertsolari Eskola (ALBE)

Txapelduna: [Aroa Arrizubieta](#)

Faseak/Saioak:

[2018-02-09 Getxo Sariketa](#)

Akerbeltz Bertso Txapelketa (10. 2018. Markina-Xemein)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2521-akerbeltz-bertso-txapelketa-10.-2018.-markina-xemein>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Markina-Xemein

Hedadura: Markina-Xemein

Antolatzailea: Markina-Xemeingo Gazte Asanblada

Txapelduna: [Josune Aramendi](#) eta [Joseba Sololuze](#) (Ekologistak)

Faseak/Saioak:

[2018-01-20 Markina-Xemein Sariketa](#)

Aramaioko Kopla Txapelketa (1. 2018. Aramaio)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2623-aramaioko-kopla-txapelketa-1-2018-aramaio>

Kokapena: Aramaio

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Aramaioko Bertso-Eskola

Txapelduna: [Maidar Arregi](#)

Faseak/Saioak:

[2018-10-19 Aramaio Sariketa 18:30](#)

[2018-10-19 Aramaio Sariketa 19:30](#)

[2018-10-19 Aramaio Sariketa 21:00](#)

B-Lañon Sariketa (5. 2018. Gernika)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2563-b-lanon-sariketa-5-2018-gernika>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gernika

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: B-Lañon

Txapelduna: [Eli Pagola](#)

Faseak/Saioak:

[2018-05-18 Gernika-Lumo Sariketa](#)

Barañaingo kopla txapelketa musikatua (5. 2018. Barañain)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2565-baranaingo-kopla-txapelketa-musikatua-5-2018-baranain>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Barañain

Hedadura: Nafarroa

Antolatzailea: Barañaingo Bertso-Eskola (Iruñerriko BE)

Txapelduna: Idoia Granizo

Faseak/Saioak:

[2018-05-18 Barañain Sariketa](#)

BBK Sariketa (26. 2018)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2557-bbk-sariketa-26.-2018>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Bizkaia

Antolatzailea: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK)

Sailkapena:

1. Durangaldea: Eider Gallastegi, Ander Sarriugarte, Bittor Altube, Eneko Barruetabeña, Iker Apraiz, Txaber Altube
2. Uribe Kosta: Aritz Landeta, Maider Barañano, Naroa Torralba, Maialen Ruesgas, Unai Mendiburu, Kerman Diaz.

Faseak/Saioak:

[2018-02-27 Igorre Sariketa](#)

[2018-03-01 Zalla Sariketa](#)

[2018-03-05 Bilbo Sariketa](#)

[2018-03-06 Markina-Xemein Sariketa](#)

[2018-03-12 Durango Sariketa](#)

[2018-03-13 Sopela Sariketa](#)

Finala:

[2018-03-22 Bilbo Sariketa](#)

Bergarako Bertsolari Txapelketa Nagusia (5. 2018. Bergara)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2641-bergarako-bertsolari-txapelketa-nagusia-5-2018-bergara>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bergara

Hedadura: Bergara

Antolatzailea: Bergarako Bertso-Eskola (Kopla Barik)

Txapelduna: [Garikoitz Lopez de Munain](#)

Faseak/Saioak:

Finalerdiak:

[2018-11-30 Bergara Sariketa](#)

[2018-12-14 Bergara Sariketa](#)

Finala:

[2018-12-28 Bergara Sariketa](#)

Berritxu Saria (23. 2018. Berriatua)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2573-berritxu-saria-23-2018-berriatua>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Berriatua

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Berriatuako Udala. Kultura

Txapelduna: [Xabat Illarregi](#)

Faseak/Saioak:

[2018-06-22 Berriatua Sariketa](#)

Bertso Erronda (2. 2018. Bilbo)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2535-bertso-erronda-2.-2018.-bilbo>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bilbo

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Adaxka taberna, Biba! Taberna, Errondabide, La Villa eta 7katu gaztetxea

Txapelduna: [Urko Arregi](#)

Faseak/Saioak:

[2018-02-06 Bilbo Sariketa](#)

[2018-02-20 Bilbo Sariketa](#)

[2018-02-27 Bilbo Sariketa](#)

[2018-03-06 Bilbo Sariketa](#)

[2018-03-15 Bilbo Sariketa](#)

“Bertso txiki, saio handi” bertso desafioa (3. 2018. Zerain)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2642-bertso-txiki-saio-handi-bertso-desafioa-3-2018-zerain>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Zerain

Hedadura: Goierri

Antolatzailea: Zerainlab

Txapeldunak: [Maialen Akizu](#) eta [Eneko Araiztegi “Korta”](#)

Faseak/Saioak:

[2018-12-01 Zerain Berezia](#)

Bertsokatu Txapelketa (8. 2018. Gasteiz)

BDB fitxa: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2551-bertsokatu-txapelketa-8.-2018.-gasteiz>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gasteiz

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Kutxiko Tabernariak

Faseak/Saioak:

[2018-02-21 Gasteiz Sariketa](#)

[2018-02-28 Gasteiz Sariketa](#)

[2018-03-07 Gasteiz Sariketa](#)

[2018-03-14 Gasteiz Sariketa](#)

[2018-03-22 Gasteiz Sariketa](#)

Bertsotruk. Euskal Herriko Bertso Eskolen arteko desafioak (2. 2016-2017)

